

---

# EAEko INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA 2020

---

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

---

**Argitaraldia:**

2014ko abendua



Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritza  
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Diseinua:**

CANALDIRECTO  
[www.canal-directo.com](http://www.canal-directo.com)

**LG (Lege-gordailua)**

XX-XXXXXXX

---

---

EAEko  
**INGURUMEN  
ESPARRU  
PROGRAMA  
2020**

---

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

---

# AURKIBIDEA

---

## 0

### AURKEZPENA

**Iñigo Urkullu Renteria** . . . . . 4  
Euskadiko Lehendakaria

**Ana Oregi Bastarrika** . . . . . 6  
Ingurumen eta Lurralde  
Politikako sailburua  
Eusko Jaurlaritza

---

## 1

### SARRERA. INGURUMENAREKIN KONPROMETITUTAKO HERRIALDEA

- 1.1. IV. Ingurumen Esparru Programa . . . . . 9
  - 1.2. Politika jarraitua eta sostengatua . . . . . 9
  - 1.3. Pertsonak ingurumen-politikaren  
muinean . . . . . 16
  - 1.4. Plangintza norberaren eta ingurunearen  
joeretatik abiatuta egitea . . . . . 16
  - 1.5. 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako  
Euskal Ingurumen Estrategiaren  
eta 2011-2014 aldirako III. IEPren  
ebaluazioa . . . . . 18
  - 1.6. 2020rako Ingurumen Esparru Programa  
berria elaboratzeko prozesua. . . . . 21
  - 1.7. 2020rako ingurumen erronkak . . . . . 24
- 

## 2

### HOBETO BIZI, ENPLEGU GEHIAGO SORTU ETA MUNDUAN PRESENTZIA HANDIAGOA IZAN, INGURUMENA ERRESPETATUZ

- 2.1. Ikuspegi estrategikoa . . . . . 29
  - 2.2. Balioak . . . . . 30
  - 2.3. Esparru estrategikoa . . . . . 32
-

# 3

## INGURUMEN ESPARRU PROGRAMAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

- 1. Helburu estrategikoa.** . . . . . 35  
Gure kapital naturala babestea,  
kontserbatzea eta lehengoratzeta,  
ekosistemek eskaintzen dizkiguten  
zerbitzuak gerizatzeke
- 2. Helburu estrategikoa.** . . . . . 38  
Ekonomia lehiakor, berritzaile,  
karbono isurketa txikiko eta baliabideen  
erabilpenean eraginkor baterantz  
aurora egitea
- 3. Helburu estrategikoa.** . . . . . 41  
Gure herritarren osasuna  
eta ongizatea sustatzea  
eta babestea
- 4. Helburu estrategikoa.** . . . . . 43  
Lurraldearen jasagarritasuna  
handitzea
- 5. Helburu estrategikoa.** . . . . . 46  
Politiken koherentzia bermatzea  
ingurumen-integrazioa areagotuz
- 6. Helburu estrategikoa.** . . . . . 49  
Euskadiren nazioarteko  
proiektzioa eta erantzukizuna  
sustatzea
- 

# 4

## IEP 2020 KUDEATZEKO ETA SEGIMENDUA EGITEKO EREDUA

- 4.1. Gobernantza. . . . . 51
- 4.2. Ingurumen Esparru Programaren  
baliabide ekonomikoak . . . . . 51
- 4.3. IEP 2020 programaren  
segimendua eta ebaluazioa . . . . . 55
- 

# 5

## ERANSKINAK

- I. eranskina** . . . . . 57  
Proiektu giltzarrien xehetasunak
- II. eranskina** . . . . . 65  
Diagnostiko-dokumentuak
- III. eranskina** . . . . . 65  
IV. IEP 2020 elaboratzeko parte-  
hartze prozesua
-



---

## IÑIGO URKULLU RENTERIA

Euskadiko Lehendakaria

---

**Ingurumena, izan ere, benetako aukera-iturria da bai pertsonen garapenerako eta bai enpresa eta ekintzaileentzat aberastasuna sortzeko, eta ahalbide berriak eskaintzen ditu gizarte zuzenago eta bidezkoago bat eraikitzeko.**

1997an, Amsterdamgo Itunak, 2. eta 6. artikuluetan, Europar Batasunaren helburuen erdian kokatu zituen «ingurumena errespetatzen duen hazkunde jasangarria» eta ingurumena beste politiketan txertatzea. 2010ean, Europako Batzordeak Europa 2020 Estrategia onartu zuen, non elkar sendotzen duten hiru lehentasun proposatzen baitira: hazkunde adimentsua, ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomiaren garapena eskatzen duena; hazkunde jasangarria, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiliko dituen ekonomia berdeago eta lehiakorrago bat proposatzen duena; eta hazkunde integratzailea, enplegu maila altuko eta gizarte- eta lurralde-kohesio handiko ekonomia sustatzen duena.

Esparru horretan, Eusko Jaurlaritzak, pertsonak hartzen dituen bere politika eta jarduerak guztien ardatz eta erdigune gisa, bere legegintzaldiko programan, ingurumen-politika identifikatu zuen datozen urteetarako jardunaren gune garrantzikoena eratuko duten politika giltzarrien artean.

«2020rako Euskadiko IV. Ingurumen Esparru Programak» Eusko Jaurlaritzak ingurumenarekin duen konpromiso hori jasotzen du. Arrazoi horregatik, Programa hori Eusko Jaurlaritzak gizartearen aurrean hartutako konpromisoen erdigunea osatzen duten 14 plan estrategikoen barruan dago, «Euskadi 2020, Giza Garapena eta Hazkunde Jasangarria» txostenean islatzen den bezala.

Era horretan, ingurumena zeharka txertatzen da Euskadi 2020 estrategia orokorrean, eta haren parte denez, ongizatea lortzen, enplegua sortzen eta karbono gutxiko ekonomia integratzailea garatzen laguntzeko eginkizuna hartzen du bere gain.

Euskadik garrantzi handiko aurrerapena egin du azken urteotan ingurumenaren arloan, herritarren, enpresen, gizarte zibilaren eta administrazioaren ahaleginari esker. Guztien artean egindako lanak erreferentzia gisa kokatu du gure herrialdea Ingurumen Errendimenduaren Nazioarteko



Adierazleari dagokionez. Ingurumen arloan aitzindari izateari eta ingurumen-adierazle nagusien bilakaeran izandako hobekuntzari esker, baikortasunez ekiteko moduan gaude ingurumen-politikaren etapa berri honi.

Ingurumena, izan ere, benetako aukeraturria da bai pertsonen garapenerako eta bai enpresa eta ekintzaileentzat aberastasuna sortzeko, eta ahalbide berriak eskaintzen ditu gizarte zuzenago eta bidezkoago bat eraikitzeko.

Gure gizartean zabaldua dagoen iritzia da ingurumenaren egoerak hobera egin duela azken urteotan eta gero eta konpromiso maila handiagoa du ingurumenarekiko. Euskal herritarren gehiengo handi bat, gaur egun ere, kezkatuta dago ingurumen-arazoez eta garrantzi handia ematen dio hura babesteari, hau da, politika horiek indartzearen alde agertzen da, argi eta garbi. Eta ez da harrizkoa horrela izatea, gure gizartearen ongizaterako oinarrizko zutabeetako batez ari baikara.

Historiaren une honetan, gure lehentasuna ingurumen-politika modernizatzea da, XXI. mendeak dakarzkigun arazo eta erronka berriei aurre egin ahal izateko. Ingurumen-arazoen inpaktuari buruz dauden zalantzak eta ziurgabetasunak ez lirakeke aitzakia izan behar hartu beharreko neurri politikoak atzeratzeko. Egungo belaunaldia etorkizuneko belaunaldien ongizatearen arduradun denez, oinarrizkoa da etorkizunaren ikuspegi koherente bat izatea, gaur ingurumen-politikan hartzen ditugun erabakiek ebartziko baitute biharko etorkizuna.

Esparru horretan, Euskadik, jakinaren gainean egonik Europar Batasunak markatzen dituen baliabideen eta lehentasunen mende gaudela, konplexutasun eta ziurgabetasun maila handikoak izateaz gainera, elkarren mendeko diren sei ingurumen-erronka nagusi aurkezten ditu. Euskadiko etorkizuneko ingurumen-politikaren erronkak: gure kapital naturala babestea ongizatearen eta bizi-kalitatearen iturri gisa; klima-aldaketa eta eredu energetikoa bateratzea; osasun publikoa eta ingurumenarekiko duen mendekotasuna; ekonomia zirkularra eta lurralde lehiakorra bultzatzea; etorkizuneko belaunaldiekiko konpromisoa lehenesten duen hezkuntza; eta erantzukidetasunean oinarritutako gobernantza.

Konbentziturik gaude gizarte oparo, moderno eta aurreratu bat artikulatzeko modu bakarra gure baliabide naturalak babestea eta errespetatzea dela, eta pertsona guztien osasunerako eta bizi-kaliterako egon litezkeen ingurumen-arriskuak arduraz bereziz prebenitzea. Bat egiten dugu horrela 2020ra arteko Europar Batasunaren Ingurumen Arloko VII. Ekintza Programa Orokorraren gogoetarekin: «Ondo bizi, gure planetaren mugak errespetatuz». Pertsona guztiek dute eskubidea, gaurkoek eta biharkoek, kalitateko ingurune batean bizitza duina izateko; ideia horrek adierazten du garapen jasangarrirako gure ereduaren muina eta berori da gure gobernu-lemaren funtsa: «Pertsona helburu».

Dokumentu honetan aurkezten dizuegun 2020rako Euskadiko Ingurumen Esparru Programak eginkizun hauek beteko ditu: etapa berri baterako ibilbide-orria izatea, norabidea markatzea eta, datozen urteetarako, ingurumen arloko jarduerak koordinatzea.



---

## **ANA OREGI BASTARRIKA**

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua  
Eusko Jaurlaritzza

---

**Dokumentu honekin 2002 eta 2020 arteko ingurumen plangintza estrategikoaren ziklo bat ixten da, eta ingurumenaren hobekuntzak aberastasuna, enplegua eta ongizatea sortzeko eskaintzen dituen aukera ekonomikoak eta sozialak aprobetxatzera bideratutako ingurumen-politikaren etapa berri bat hasten da.**

Ingurumen-politikak, eraginkorra izan nahi badu, epe luzeko helburuak lortzen saiatu behar du. Premisa horretatik abiatuta, azterketa sakon baten eta hausnarketa-prozesu luze baten ondoren, Euskadiko IV. Ingurumen Esparru Programa 2020 aurkezten dugu. Ingurumen-politika modernorako, integratzaileko eta orientatzaileko oinarria da, eta politikako, gizarteko eta ekonomiako eragile guztien erantzukidetasunean oinarrituta dago.

Azken hamarraldiotan, ingurumena nabarmen hobetu da Euskadin. Gure ingurunea garbiagoa eta seguruagoa da. Harro egon gaitzke airearen, uraren eta lurzorua kalitatean lortutako hobekuntzez. Hala ere, une honetan aurrez aurre ditugun ingurumen-arazo nagusiak beste izaera batekoak dira eta bestelako ikusmoldea eskatzen dute ekitera goazen plangintza berriaren baitan.



Klima-aldaketa horren adibide ona da. Denbora luzea beharko da gure ekoizpen-eta kontsumoprozesuak aldatuz karbono gutxiko ekonomia baterako bidea egiteko. Dena den, ingurumen-arazoak eta haien eraginari buruzko zalantzak ez dira aitzakia gisa erabili behar hartu beharreko neurri politikoak atzeratzeko. Gaur egungo belaunaldiak du etorkizuneko belaunaldien ongizatearen ardura; hortaz, ezinbestekoa da etorkizunaren ikuspegi koherentea izatea.

Euskadi jasagarri bat errealitate egin ahal izateko, 2020rako Ingurumen Esparru Programa berriak erantzunkidetasunean oinarritzen du bere espiritua. Helburu erkide hori gizarte zibilari, sare ekonomikoari eta Administrazioari berari esker lortuko da, elkarrekin inplikatu beharko baitute modu osasuntsuan, seguruan eta amultsuan bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko aukera emango duen gizarte baten eraikuntzan.

Dokumentu honekin 2002 eta 2020 arteko ingurumen plangintza estrategikoaren ziklo bat ixten da, eta ingurumenaren hobekuntzak aberastasuna, enplegua eta ongizatea sortzeko eskaintzen dituen aukera ekonomikoak eta sozialak aprobetxatzera bidera-

tutako ingurumen-politikaren etapa berri bat hasten da. Ingurumen-politika berri horretarako proposatzen dugun aldaketa Programaren beraren elaborazio prozesuan islatuta geratu da.

Aipatzekoa da hiru foru aldundiek eta udalek jokatu duten papera 2020rako Euskadiko IV. Ingurumen Esparru Programaren elaborazio prozesuan, ekintza publikoa ingurumenaren alorrean koordinatzeko eta, lurralde osoari begira, ingurumenaren aldeko politika publikoen hedapen eraginkorra errazteko.

Azkenik, baina ez garrantzi txikiagoa duelako, nabarmentzekoa da gure lurraldean ingurumena hobetzearen alde lan egiten duten hainbat gizarte-eragilek jokatzen duten papera, enpresak eta herritarrak barne direla, gero eta konpromiso handiagoa baitute ingurunea babesteko.

Orain hasten den etapa berri honetan, horiek guztiak izango dira egiazko protagonistak, euskal gizarteak, oro har, eraiki behar duen publiko-pribatu arteko erantzunkidetasun hitzarmen berritu batean, gure ingurumenaren egoera hobetzeko ekintza positiboaren barruan.





---

# **SARRERA. INGURUMENAREKIN KONPROMETITUTAKO HERRIALDEA**

---

## 1.1. IV. INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA

Euskadiko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorrak ezartzen du bere 6. artikuluan, ingurumen-organoak lau urtetik behin egingo duen Ingurumen Esparru Programa (IEP) batean zehaztuko dela Euskadiko ingurumen-politika. Testuinguru horretan, hiru Ingurumen Esparru Programa prestatu dira: I. IEP, 2002-2006 aldiari dagokiona, II. IEP, 2007-2010 aldiari dagokiona eta III. IEP, 2011-2014 urteetarako estrategia zehazten zuena.

2002-2020 aldirako Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia I. IEPekin batera elaboratu eta argitaratu zen, ondorengo xede hauekin:

- I. IEPri eta hurrengoei epe luzeko ikuspegi estrategikoa eskaintzea
- 3/98 Legearen filosofiarekin bat etorririk, ingurumen-politikaren antolamendu egonkor eta iraunkorra sorraraztea eta, hala, bermea, segurtasuna eta eraginkortasuna ematea bai ekintza publikoari eta bai ekimen pribatuei.
- Euskal ingurumen-politikako proiektuak eta planteamenduak hura prestatu zen garaiko nazioarteko testuingurura egokitzea, batez ere, 2001eko Europar Batasunaren garapen jasangarrirako Estrategiaren ingurumen-dimentsiora.

2013ko ekainaren 11n, Eusko jaurlaritzak X. Legegintzaldiko (2013-2016) plan estrategikoen egutegia onartzeko hitzarmena sinatu zuen. IV. Ingurumen Esparru Programa (IV. IEP 2020) esandako hitzarmenak jasotzen dituen 14 plan estrategikoen barruan dago, «Enplegua eta Hazkunde Jasangarria» blokearen barruan.

IV. IEPk 2020. urtea markatzen du denbora-muga gisa, ingurumenaren alorreko Europako erreferentzia printzipalekin lerrokatzeko, bereziki, 2020ra arteko Europar Batasunaren Ingurumen arloko VII. Ekintza Programa Orokorrarekin: «Ondo bizi, gure planetaren mugak errespetatuz».

Azken batean, 2020rako Ingurumen Esparru Programa honek:

- Euskadik aurrez aurre dituen ingurumen-erronka berriak deskribatzen ditu;
- 2020rako helburu eta jarduketa nagusiak finkatzen ditu;
- administrazioari, herritarrei eta enpresei, ingurumenaren arloko aukerei buruz beharrezkoak diren agintaritzak eta aurreikuspenak eskaintzen dizkie;

## 1.2. POLITIKA JARRAITUA ETA SOSTENGATUA

Euskal ingurumen-politikak 30 urtetik gorako historia du eta denbora horretan ahalegin publiko eta pribatu garrantzizkoak egin dira eta desafio ikaragarriekin ekin zaie herrialdeari ingurumen-garapen jasangarriaren bidetik bultzada emateko. Gogoratzekoa da, esate baterako, duela lau hamarraldi, ia ez genuela azpiegiturarik hiri-uren arazketaren arloan. Ez genuen airearen ingurumen-kalitatea edo ur-masen kalitatea kontrolatzeko sarerik eta, hori baino garrantzitsuagoa, ez genuen ezagutzarik, ez esperientziarik ingurumen-politikaren arloan, ez herri-administrazioan, ez enpresetan eta ez gizarte zibilean.<sup>1</sup>

<sup>1</sup> Ikus II. eranskina. 2. diagnostiko-dokumentua: NONDIK txostena: 1980-2012 urteetako Euskadiko ingurumenaren egoerari buruzko balantzea.

Ildo horretan, esan dezakegu Euskadik oso aurrerapen esanguratsua egin duela, azken hamarraldiotan, ingurumen-politikaren arloan.

Alde batetik, Europako eskualde aurreratuenen artean dago ingurumenarekin lotura duten eta abian jarri diren politika eta tresnei dagokienez. Horren adibide adierazgarri dira esparru tematiko bakoitzean (klima-aldaketa, biodibertsitatea, airea, ura, lurzorua, hondakinak eta baliabide materialak) ingurumen-informazioa biltzea, aztertzea eta argitaratzea, edota ingurumen-bektore nagusien informazio eguneratua eskaintzen duten estatistika-eragiketen multzo egonkorra.

Bestalde, azken urteotan lortutako emaitzak kontuan harturik, Euskadi laugarren postuan kokatu da Ingurumen Errendimenduaren Adierazleari dagokionez, Norvegia, Frantzia edo Austria aurretik dituela. Emaitza horiek eta lortutako hobekuntzak «Ingurumen Profila» deituriko dokumentuan daude jasota, non adierazle nagusien bilakaera eta «Euskadiko Ingurumen Errendimenduaren Adierazlea» dokumentatzen baitira<sup>2</sup>.

Ondorengo koadroan laburbiltzen dira sintetikoki 80-90 hamarralditik gaur egunera arteko Euskadiren ingurumen-diagnostikoaren alderdi printzipalak.

## DENBORAN ZEHAR MANTENDU DEN INGURUMEN-DIAGNOSTIKOA

Eusko Jaurlaritzak «Euskadiko Ingurumenaren Egoera» izeneko bost txosten egin ditu (1986, 1998, 2001, 2004 eta 2009 urteetan). Horrela, 1998. urteaz geroztik dago finkatuta oinarrizko adierazleen multzoa, Europar Batasunarekin bat etorrira, eta eguneratu eta hobetu egiten da. Horrez gain, 2002. urteaz geroztik urtero egiten eta argitaratzen da ingurumen-adierazle nagusien txostena (Ingurumen Profila) non jasotzen baita Euskadiko adierazle garrantzitsuenen bilakaera. Txosten horiek ingurumenaren bilakaeraren ikuspegi global azkar bat eskaintzen dute eta existitzen diren joerak islatzen dituzte.

Azkeneko hamarraldian Euskadin ingurumenak izan duen bilakaeraren ikuspegi sintetiko bat eduki dezakegu, alde batetik, 2001ean lortutako balantzea eta, bestetik, 2013ko ingurumen emaitzak aztertu eta alderatuta. Euskadiko ingurumenaren egoerak, 2001ean, kontrako bilakaera erakusten zuen hainbat gaitan –klima-aldaketa (berotegi-efektuko gas isurketak), kutsatutako lurzoruak, itsasoko eta itsasertzeko ingurumenaren egoera...– eta beste esparru askotan, berriz, aurrerapena eskasegia zen (lurzoru kontsumoa, ur kontsumoa, airearen kalitatea eta biodibertsitatea). Energia kontsumoa zen salbuespen bakarra: joera positiboa antzematen hasia zen ordurako. Gainera, existitzen ziren presioen eta joeren azterketa egin ostean, ingurumenaren egoerak ez zuen itxaropen handirik etorkizunerako, kontrako aurreikuspenak egiten baitziren produktu kimikoen isurketetan, klima-aldaketan eta biodibertsitatean.


Gaur esan dezakegu azkeneko hamarraldian enpresek, gizarteak eta herri-administrazioak elkarrekin abian jarritako erreminta, tresna eta jarduera guztiek 2014an ingurumenaren egoera hobea edukitzeraz bideratu gaituztela.

Hona, ondoren, laburbilduta, Euskadiko ingurumenaren arloko gai nagusien egungo egoera:

<sup>2</sup> Ikus II. eranskina. 3. diagnostiko-dokumentua: 2013ko Euskadiren Ingurumen Profila eta 4. diagnostiko-dokumentua: 2013ko Euskadiko ingurumen-errendimenduaren adierazlea.


**KLIMA-ALDAKETA:** 1990 eta 2011 artean, Berotegi-Efektuko Gasen (BEG) isurketak % 3 murriztu dira eta beheranzko joera jarraitua hautematen da 2007tik aurrera. Zehatzago esanda, 2000-2011 aldian, errekuntzatik sortutako CO<sub>2</sub> isurketa totalak % 18 murriztu dira Euskadin. Epe horretan bertan, BEGk % 25 egin zuen gora eta energia-kontsumoak, berriz, % 4. Horrek esan nahi du EAEko sektore sozioekonomikoak efizienteagoak direla (energia-intentsitate txikiagoa) eta energia-kontsumoaren ingurumen-efizientzia handiagoa dela (energia garbiagoa).

> BEG isurketen bilakaera



**AIREAREN KALITATEA:** azken hamarraldiotan airearen kalitateak, oro har, nabarmen egin du hobera: urtean egun bat baino gutxiagora murriztea lortu da airearen kalitate txarreko indizea. 1990 eta 2010 artean, Sufre Oxidoen isurketak (SOx) % 71 gutxitu dira, Nitrogeno Oxidoenak (NOx) % 1 eta Konposatu Organiko Hegazkor Ez Metanikoenak (KOHEM) % 13.


> Airearen kalitatea



\* Metodologia aldatuz hurbiltzea.

**URAREN KALITATEA:** azken urteotan gure ibaietako ur-masen kalitatea etengabe hobetu da. Bestalde, gure hondartzetako uraren kalitateari dagokionez, 1985ean egoera txarreko/eskaseko urak % 44 izatetik, 2012an % 11 izatera igaro dira. Urte horietan berorietan, % 80tik % 96raino handitu da kontsumorako kalitate oneko ura duen populazioaren portzentajea.


> Ibaien uraren kalitatea



\* Metodologia aldatuz hurbiltzea.

**LURZORUAREN KALITATEA:** erabilera berrietarako berreskuratu diren lurzoru kutsatuen hektarea kopuruak joera positiboa izan du: 600 hektareatik gora dira guztira. Azkeneko 10 urteotan, urtean 100 hektareatik hurbil berreskuratu dira, batez beste. 2000 eta 2012 urteen artean, ikertutako tokien kopurua 1.312koa izan da, eta horietatik 524 berreskuratu dira. Ondorio gisa esan dezakegu ezarrita dauden prebentzio-neurriekin eta egindako berreskuratzeei esker, lurzoru baliabidearen kalitatea hobetzen ari dela pixkanaka.

> Lurzoruaren kalitatea



**BIODIBERTSITATEA:** lehorreko biomaren babesa bikoiztu egin da. 2000. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen % 12 zen babestua. Natura 2000 Sarea EAEn ezartzeko lehenengo urratsak 1997., 2000. eta 2003. urteetan egin ziren. Urte horietan, sei gune izendatu zituzten Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE), eta 52 gune proposatu Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) gisa aitortzeko. Leku horiek Europako Batzordera eraman ziren, eta guztiak onartu ostean, BGL izendatu zituzten, Euskadi barne hartzen duten Atlantikoko nahiz Mediterraneoko eskualde bio-geografikoen barruan. Europako Batzordearen erabaki horiek eguneratu egin dira, eta gaur egun, Natura 2000 Sareak Euskadiko azaleraren % 20,3 hartzen du. Identifikatutako habitatatetik, % 18k nabarmen egoera ona agertzen dute. Gainerakoari dagokionez, % 35ek kontserbazio-egoera orokor txarra du; eta kasuen % 47tan, habitataren egoera orokorrak orotariko ebaluazioak agertzen ditu, barrutiei, okupatutako azalerari, egiturari eta funtzio espezifikoei edo etorkizunerako aukerei dagokienez.


**HONDAKINEN SORRERA:** 1986 eta 2010 bitartean, hiri-hondakinen sorrera % 76 hazi da. Hala ere, aldi horretan bertan, industriako hondakinen sorrera % 79 murriztu da eta hondakin arriskutsuena % 97.

> Hiri-hondakinen sorrera




\* Behin-behineko datua.

> Industriako hondakinen sorrera




**MATERIALEN KONTSUMOA:** materialen kontsumoa bikoiztu egin da 1990etik, nahiz eta produktibitate materiala (alegia, ekonomian erabilitako material kantitatearen arabera sortutako BPG) 4 aldiz biderkatu den, 0,5 €/Kg izatetik 2 €/Kg izatera igaro baita.

> Materialen kontsumoa



**GIZARTEA ETA INGURUMENA:** euskal herritarrek ingurumen arazo nagusiei buruz duten pertzepzioa aldatu egin da denboran zehar; hala, 2001ean uraren kutsadura eta paisaia suntsitzeari lehentasuna ematen bazitzaien, 2013an, airearen kutsadura eta klima-aldaketa nabarmentzen dira arazo nagusi modura. Gainera, industria pisua galtzen ari da, pixkanaka, herritarren pertzepzioan, ingurumen-kutsaduraren eragile nagusi gisa: 2001ean, % 63k uste zuten hala zela, eta 2011n, aldiz, % 53k; herritarrek protagonismo handiagoa aitortzen diote beren buruari arlo horretan. Aipatzekoa da, azkenik, 2001n biztanleriaren % 36k hobekuntza bat hauteman zuela ingurumenean azken urteetan, eta iritzi hori duten herritarren portzentajea % 56raino igo dela 2011n.



1.1 grafikoa. Herritarren pertzepzioa ingurumen-arazoei buruz

**Euskadiko ingurumen-politikaren etapak** honela laburbildu daitezke:

— **1980tik 1998ra. Oinarriak ezarri ziren eta arazo larrienei aurre egin zitzairen**

Urruti geratu dira joan zen mendeko 80-90 urteak; orduko lehentasunak, ingurumenari zegokionez, garai hartako ingurumen-pasibo garrantzizkoak kudeatzea eta mota guztietako baliabideak arpilatu izan zituen eredu desarrollista batek eragindako lehorreko eta itsasoko ekosistemen degradazio- eta kutsadura-arazo larriei nolabaiteko galga jartzea zen.

1980an sortu zen Ingurumen Sailburuordetza eta orduan hasi zen formalki euskal ingurumen-politika. Aldi hartan, garrantzi handiko hainbat gertaera izan ziren, esate baterako, ibaien eta uraren kalitatea zaintzeko sarea ezarri zen, natura-gune babestuen sarea eratu zen, eta industriako sektore jakin batzuekin borondatezko hitzarmenak jarri ziren abian ingurumen-presioak murrizteko.

Eusko Legebiltzarrak 1998an Ingurumenaren Lege Orokorra onartu izanak egokitze-puntu berri bat markatu zuen Europar Batasunetik eta nazioarteko beste erreferentzia batzuetatik zetozen araudiekin eta jasangarritasun politikekin. Orduetik hona ahalegin azpimarragarria egin da Europatik datorren ingurumen-politikarekin lerrokatuta mantentzeko, hainbat esparrutan: diagnostikoak, estrategiak, metodologiak, adierazleak, txostenak...

— **1998tik 2014ra. Plangintza egin eta erabakimenez jardun zen ingurumenaren egoera eraldatzeko**

Behin erakunde- eta arau-oinarriak ezarri eta ingurumen-politika finkaturik zela, garrantzi handiko plangintza- eta eraldatze-prozesu bat ireki zen.

2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategia eta 2002-2006rako I. Ingurumen Esparru Programa dira aro honetako gertaera nagusiak, II. eta III. Ingurumen Esparru Programen prestakuntzari eta ezarketari bidea ireki ziotenak, azken hauek bihurtu baitziren ingurumen-politikaren muin eta gidari: helburuak eta konpromisoak markatu zituzten eta jarraipen estua egin zitzairen haien bilakaera monitorizatzeko. Esparru programen garapenarekin batera, oso izaera desberdineko hainbat plan, programa eta jardueraz osatutako multzo garrantzitsu bat jarri zen abian, ingurumen-inpaktuak prebenitzeko asmo proaktiboa horietan guztietan islatzen zela.


— **Gaur egun**

Gaur egun, hainbat hamarralditan ingurumen-politika sendotuz joan ondoren, etapa berri bat hasi da non egindako lana eta lortu diren emaitza garrantzitsuak biltzen baitira. Hortik abiatuta, ingurumen-politikaren etapa berri hau aberastasuna, enplegua eta ongizatea sortzeko ingurumenaren hobekuntzak eskaintzen dituen aukera ekonomiko eta sozialak baliatzea orientatuko da.

1.2 grafikoak erakusten digu 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Ingurumen Estrategia onartu zenetik gauzatutako aldaketa. Plangintzarako tresnak inplementatuz joan dira iraganean, beren arteko lotura ez oso sendoen bidez (mugikortasuna, lurralde-antolamendua, klima-aldaketa, landa-garapena, etab.). IV. IEP 2020 honen bitartez, esandako Estrategian zehazten den aldiari amaiera emateaz gainera, integrazioa eta koordinazioa kantoi-harri bilakaraztea bilatzen da, herrialde-ikuspegi batetik politika desberdinak batuko dituen etorkizuneko Ingurumen Estrategia baten elaborazioari begira aurrera egiteko.



## EUSKADIKO INGURUMEN ESTRATEGIA BATERANTZ



1.2. grafikoa.

### 1.3. PERTSONAK INGURUMEN-POLITIKAREN MUINEAN

2015-2020 aldirako Ingurumen Esparru Programa «Euskadi 2020, giza garapena eta hazkunde jasangarria» proiektua eratzen duten 14 plan estrategikoetako bat da eta haren hiru ardatzetatik lehenengoan txertatzen da: Hazkunde Jasangarria (Ikus 1.4 grafikoa).

«Ingurumen-politika arduratsua» izenburuko paragrafoan ekimen hau jasotzen du: «2015-2020 aldirako IV. Ingurumen Esparru Programa elaboratzea eta 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarriko Euskal Ingurumen Estrategian aurreikusitako konpromisoak garatzea». Adierazten du, era berean, Eusko Jaurlaritzaren helmuga printzipaletako bat etorkizuneko belaunaldiei lurralde atseginagoa, jasangarriagoa eta garapenerako potentzial handiagoa duena uztea dela.

Eusko Jaurlaritzarentzat, ingurumen kontzeptuak giza bizitza baldintzatzen duten faktore guztiak hartzen ditu barnean, ez naturalak bakarrik, bai-eta sozialak, ekonomikoak eta kulturalak ere. Ingurumenaz aritzea gure bizitza-egoeraz aritzea da, baita gure jarduerak egiten ditugun testuinguruaz eta gure ekosistemek ematen dituzten zerbitzuez aritzea ere. Horrez gain, azken urteetan herrialde gisa jaso dugun ingurumen-ezagutzaren balioa azpimarratzea ere bada.

Labur esanda, ingurumena politika guztietan eraginkortasunez txertatzea bultzatu behar dugu. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak zeharkako elementu gisa gehitzen du ingurumena, zeinak modu erabakigarrian laguntzen baitu ongizatea lortzen, enpleguaren sorreran eta etorkizuneko ekonomiaren garapenean. 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programa, hortaz, pieza giltzarrietako bat da Euskadiko motor ekonomiko berria eraikitzeko. Jaurlaritzaren plana den neurrian, gobernuko sail guztiek hartu dute parte aktiboki programaren elaborazioan eta berdin egingo dute hura egikaritzeko unean ere.

IV. IEPk lotura bikoitza du Eusko Jaurlaritzaren gainerako plangintza estrategikoarekin. Alde batetik, hazkunde jasangarriaren alde hark egindako apustuaren funtsezko pieza da (Ikus 1.3 grafikoa). Ingurumena indartsu aprobetxatzen da enplegua eta jarduera ekonomikoa suspertzeko aukerak eskaintzen dituen benetako iturri gisa, bai-eta enpresa berritzaileen, pertsona ekintzaileen eta enplegu berdearen garrantzi handiko harrobi gisa ere. Baliabideak eta lehengaiak aurrezteko lehiakortasun iturria da enpresentzat, epe ertain eta luzera. Halaber, herrialdeko espezializazio adimentsuentzat, ingurumena zeharkako aukerak eskaintzen dituen nitxo gisa agertu da. Euskadik ingurumen-arazo globalekiko erakutsi dituen erantzukizuna eta konpromisoa nazioartean proiektzioa eta irudia izateko faktoreak dira. Azkenik, ingurumen-gobernantza bikaintasunaren aldeko apustuaren elementu bat gehiago da eta Administrazio osoa konprometitzen du bere jardueretan ingurumenaren kudeaketa ereduak eta arduratsua gauzatu dezan.


Bestalde IV. IEPk modu erabakigarrian laguntzen dio giza garapenari. Ingurumena erabakigarria da pertsonen osasunari dagokionez, hura babestean ekosistema naturalek ematen dituzten zerbitzuak (lehengaiak, baliabide energetiko eta hidrikoak, paisaia, kultur ondarea, etab.) gerizatzen dira, eta lurralde-kohesio eta -lehiarako faktorea da, baita etorkizuna ikusten dakiten herritarrentzat prestakuntza integraleko eta erantzukizuneko faktorea ere.

### 1.4. PLANGINTZA NORBERAREN ETA INGURUNEAREN JOERETATIK ABIATUTA EGITEA

#### **Ingurumenak mundu mailan izandako bilakaeraren perspektiba. Nazio Batuak eta Europar Batasuna**

Ikuspegi globaletik, mundu mailan pisu handienetakoa duten erakundeek –Nazio Batuak eta Europar Batasuna, kasu– argi daukate ingurumenaren degradazioak mugak jartzen dizkiola herrialdeen garapen ekonomiko eta sozialerako potentzialari eta mezu argia zabaltzen dute: «*ingurumenaren arloan goranahi izateak lehiakortasuna sendotzen du eta enplegua sortzeko eta garapenerako iturri berriak sortzen ditu*».

## INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA EUSKO JAURLARITZAREN PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREN ZATI DA



1.3. grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren X. Legegintzaldirako estrategien, planen eta programen mapa

Europar Batasuneko ingurumen-alterazioen jatorria, gero eta gehiago, demografia-, kontsumo- eta merkataritza-ereduek mundu mailan duten bilakaeran eta teknikaren aurrerakada azkarrean bilatu behar dira. Bilakaera horrek hazkunde ekonomikorako eta gizarte-ongizaterako aukera handiak eskaini ditzake, baina erronkak eta ziurgabetasunak ere planteatzen ditu EBko ekonomia eta gizartearentzat, eta ingurumenaren degradazioa eragiten ari da mundu mailan.

Europak adierazpen irmoak egin ditu; Batasunaren barruan posible da berotegi-efektuko gasen isurketak askoz gehiago murriztea eta baliabideen erabilpenean dezentez eraginkortasun handiagoa lortzea. Horrela arindu egingo dira ingurumenak jasaten dituen presioak, lehiakortasuna sendotuko da eta hazkunderako eta enplegurako iturri berriak sortuko dira, eraginkortasuna areagotzetik etorritako kostu-aurrezpenari, berrikuntzak merkaturatzeari eta baliabideak beren bizi-ziklo osoan hobeto kudeatzeari esker.

Era berean, ingurumen-arazoek eta -inpaktuek kontuan hartzeko arriskuak eragiten dituzte gizakien osasunerako eta ongizaterako eta, hortaz, ingurumenaren egoera hobetzera zuzendutako neurriak onuragarriak dira pertsonen bizi kalitateak hobera egin dezan.

Hori guztia argi eta garbi finkatuta dago 2020ra arteko Europar Batasunaren Ingurumen arloko VII. Programa Orokorrean, ondorengo titulu honekin: «*Ondo bizi, gure planetaren mugak errespetatuz*», zeina 2020rako Europako Estrategiaren esparruan ezarritako ekimenetan oinarritzen baita, honako hauetan, zehazki: EBko klima eta energiari buruzko neurri sorta, 2050erako karbono gutxiko ekonomia lehiakor baterako ibilbide-orria, 2020ra arteko Biodibertsitateari buruzko EBren estrategia, eta baliabideen erabileran eraginkorra den Europa baterako ibilbide-orria.

Europar Batasunaren VII. Programa honek, 2050erako ikuspen gisa, hau jasotzen du: «*2050ean ongi biziko gara, planetaren muga ekologikoak errespetatuz. Gure oparotasuna eta gure ingurumen osasungarria ekonomia zirkular berritzaile baten emaitza dira. Ekonomia horretan, ezer ere ez da alferrik galtzen, eta baliabide naturalak jasangarriro kudeatzen dira; biodibertsitatea babesten, baloratzen eta leheneratzen da, eta horrek on egiten dio gure gizartearen erresilientziari. Gure karbono-erabilera txikiko hazkundera baliabideen erabileratik bereizita dago aspalditik; horrek markatzen du mundu osoan ekonomia seguru eta jasangarri baterako aurrerapausoa*».


## 1.5. 2002-2020 ALDIRAKO GARAPEN JASANGARRIRAKO EUSKAL INGURUMEN ESTRATEGIAREN ETA 2011-2014 ALDIRAKO III. IEPren EBALUAZIOA

IV. Ingurumen Esparru Programa prestatzeko prozesuaren esparruan, bai 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiaren eta bai 2011-2014 aldirako III. Ingurumen Esparru Programaren ezarpen mailaren kanpoko ebaluazio independente bat egin da.<sup>3</sup>

Ebaluazio prozesua egiteko jarraitu den planteamendua batez ere praktikoa izan da, bere helburu nagusia, izan ere, ondorioak ateratzea izan baita, etorkizuneko jarduera-lehentasanak erabakitzeari dagokionez.

Ondoren, ingurumen-estrategiaren ebaluazioaren alderdirik nabarmenenak jaso dira:

### 2002-2020 ALDIRAKO GARAPEN JASANGARRIRAKO EUSKAL INGURUMEN ESTRATEGIAKO HELMUGEN ETA BEHARREZKO BALDINTZEN INDARRALDI ETA EZARPEN MAILA



<sup>3</sup> Ikus II. eranskina. 5. diagnostiko-dokumentua: 2011-2014 aldirako III. IEPren eta 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiaren ebaluazio-txostena.

- Estrategiaren indarraldi maila oso altua da, oro har, eta gehiago Helmugei dagokienez, Beharrezko Baldintzei dagokienez baino. Helmuga guztiek dute indarraldi maila altua, Klima-aldaketari dagokion 5. Helmugak izan ezik. Beharrezko Baldintzen indarraldi maila ere nahiko altua da 1. eta 2. Beharrezko Baldintzei dagokienez, baina apalagoa 3, 4 eta 5. Beharrezko Baldintzen kasuan.
- Emaizta horiek berresten dute klima-aldaketaren esparruan (5. Helmuga), tresna ekonomikoetan (3. BB), erantzunkidetasunean eta parte-hartzean (4. BB) eta ikerketan (5. BB) izan duela bilakaera handiena eta eraldatu dela gehien nazioarteko ingurumen-politika, 2002tik hona.
- Bestalde, Estrategiaren helburuen gaur egungo ezartze mailari dagokionez, handiagoa da, orobat, Helmugen alorrean, Beharrezko Baldintzengan baino. Horrek agerian uzten du, indarraldi mailaren ebaluazioaren kasuan bezala, zeharkako gaien tratamenduan (non esku hartzen duten eragileen eta arduradunen kopurua eta motak handiagoak baitira) aurrera egiteak, berez, zailtasun handiagoak ekartzen dituela lehentasun tematikoetan aurrera egiteak baino.

Jarraian, 2011-2014 aldiko III. Ingurumen Esparru Programaren ebaluazioaren ondorio nagusiak bildu dira, gomendio bezala:

## 2011-2014 ALDIRAKO III. IEP-REN EBALUAZIOAREN KONKLUSIOEN SINTESIA

### Klima-aldaketa

- Klima-aldaketa IV. IEPn zeharka txertatzea. Proposatutako planteamendua Europan onartutakoaren antzekoa da, izan ere, klima-aldaketa Ingurumen arloko 7. Europako Ekintza Programa Orokor osoan agertzen da eta programa guztia blaitzen du, baina dokumentu horretan ez dago klima-aldaketari loturiko helburu lehenetsirik.
- Ingurumen-politikako lehentasuneko eremuekin lotura duten klima-aldaketara egokitzeko strategiaren alderdiak zehazten, garatzen eta ezartzen laguntzea, horien artean, biodibertsitatea, ura eta lurzorua nabarmentzen direla.
- Arintze ahaleginak sektore lausoetan, arautu gabekoetan eta borondatezko akordioetan zentratzea.
- EAEn klima-aldaketari, haren inpaktuei (ekonomikoak, ingurumen arlokoak eta sozialak) eta berorien ondoriozko zaurgarritasunari buruzko ezagutza eta informazio oinarria hobetzen, sistematizatzen eta hedatzen jarraitzea.

### Biodibertsitatea eta lurzoruen artifizializazioa

- Ingurumen, klima, biodibertsitate eta lurralde-antolamendu politikak egiteko eredu eta gobernu-organoen eraginkortasuna sinpletzea eta hobetzea.
- Ekosistema-zerbitzuen balio ekonomikoa informazio- eta kontabilitate-sistemetan integratzea.
- Biodibertsitaterako konpentsazio-mekanismoak garatzea eta ezartzea.
- Jada aitortuta dauden naturgune babestuei balioa eta garrantzia ematea, bereziki Urdaibaiko Biosferako Erreserbari, babes mailarekin bateragarri diren jarduera ekonomiko berdeak (turismo berdea, esate baterako) sustatzearen bitartez.

### **Baliabideen erabilpen eraginkorra eta kontsumo arduratsua**

- Araudiak inposatzen dituenak baino helburu eta neurri goranahiagoak ezartzea, baliabideen erabileran ekoeraginkortasuna lortzeko begira.
- Erabakimendu handiagoa hondakinen hierarkiari eusten dioten tresna ekonomikoak aplikatzeko orduan, horiek gabe zaila izango baita «Baliabideen erabileran eraginkorra den Europa baterako ibilbide-orria» deituko helburu goranahiak erdiestea.
- Ingurumen-politikaren barruan egiazko kontsumo pribatuko politika jasangarria integratzea.
- Ekodiseinua eta ekoetiketatzea ere sustatzea lurraldearen kalitatea eta lehiakortasuna hobetzeko tresna gisa.

### **Ingurune garbia eta osasungarria bermatzea**

- Airearen kalitatearen politikak legea betetze hutsaz harago joan behar du, osasuna eta ingurumena eraginkor zaindu ditzan.
- Ingurumen-, klima- eta sektore-politikatiko beste ekimen batzuetatik eratorritako airearen kaliterako arrisku eta aukerak goiz kudeatzea. Garapen-bidean den ingurumen-politikatik (nagusiki, ekoeraginkortasuna), klima-politikatik (arintzea) eta sektore-politikatik (nagusiki, garraioa, industria eta nekazaritza) sustatzen diren jarduera-ildo ugari ondorio nabarmenak dituzte airearen kalitatearen gainean, eta horiek positiboak edo negatiboak izan daitezke, metagarri edo sinergikoki.
- Arrisku-ebaluazioko eta -kudeaketako mekanismoak hobetzea, ur edangarriaren iturrietan poluzioari aurrea hartzeko, batez ere eskala txikian, horiek aiseago galdu ahal baitira.
- Bitartekoak jartzea ur edangarria eta saneamendua lortzea bermatzeko.

### **Erakundeen koordinazioa eta lankidetzak**

- IEPren gobernantza-egitura sortzea, egiazki integratuta eta instituzioetan goi-mailan eta modu ikusgai kokatuta.
- Ingurumen-aldagaia ingurumenaren aldetik inpaktu handiena duten sektoreetan integratzeko ahaleginak lehenestea.
- EAE barruan ez ezik, mundu osoan indartu behar da koordinazio eta lankidetzak instituzionala.
- Gizartearen eta herritarren parte-hartzea sendotzea ingurumen-legeriaren hobekuntzan.
- Euskaditik kanpora aukerak bilatzea lortutako ezagutza eta esperientzia kapitalizatzea.


### **Ekonomiako, zientzia-teknologiako eta gizarteko eragileen erantzunkidetasuna**

- IEPtan parte hartzeko egitura eraginkor bat sortzea edo lehendik dagoenen bat behar bezala egokitzea (Ingurumenerako Aholku Kontseilua).
- Ingurumenari loturiko hezkuntza-, prestakuntza-, sentsibilizazio- eta kontzientziazio-jarduerak hornitzea eta txertatzea ikuspegi eta planifikazio oso eta koherente batean, gizartea osatzen duten arlo guztietara iristeko xedez.
- Enpresek kontuak eman ditzaten sustatzea, esate baterako, jasangarritasun-txostenen bitartez, enpresek giza eskubideen arloan duten erantzukizuna berariaz gehitzen dutela.
- Pizgarri-politika EMASera atxikitze moduan orientatzea, inpaktuak eta ingurumen-arriskuak albat gehien murrizteko.
- Garapen Jasangarrirako hezkuntza aterki integratzaile gisa erabiltzea, hezkuntza eta sentsibilizazio alorreko lana sendotzeko eta hobetzeko aukera gisa.
- Euskadik kanpoan aintzatespena izatea eragin duten eta bikaintasun-mailak lortu dituzten lan-ildo eta programa arrakastatsu eta finkatuak mantentzea, indartzea eta balioan jartzea; adibidez, ingurumen-aldagaia euskal enpresetan integratzea, ingurumenari buruzko informazioa ekoiztea eta argitaratzea edota Eskolako Agenda 21eko lana.

## 1.6. 2020RAKO INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA BERRIA ELABORATZEKO PROZESUA

IEP berriaren xedea ingurumenaren eta garapen jasangarriaren alorrean Jaurlaritzak dituen politika publikoak, gidalerroak eta helburuak bideratzea da. Dokumentu estrategiko modura, Lehendakaritzak koordinatu du prozesua eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak sustatu du.

Ondorengo 1.4 grafikoak sintetizatzen du IV. IEP 2020 honen elaborazio prozesua.



1.4. grafikoa. 2020rako Ingurumen Esparru Programa elaboratzeko prozesua

Elaborazio prozesuan, ahalegin handia egin da Euskadiko ingurumenaren egoera ez ezik, arlo horretako aldagai eta faktore garrantzitsuenak aztertze eta ebaluatze, berorien funtzionamendua ulertze xedez. Aldez aurreko azterlan horiek guztiak *IV. IEP 2020 deituaren substratua eta funtsa osatzen duten 9 diagnostiko-dokumentutan*<sup>4</sup> jasota geratu dira.

<sup>4</sup> Ikus II. eranskina, Diagnostiko-dokumentuak.



**DIAGNOSTIKO-DOKUMENTUAK****EDUKIA**

<b>Nondik txostena: 1980-2012. urteen arteko Euskadiko ingurumenaren egoerari buruzko balantzea</b>	Euskadiko ingurumenaren eta ingurumen-politikaren egoerari buruzko ibilbide historikoa 1980tik 2012ra.
<b>IEP 2020ren oinarritzko ildo estrategiko eta ekonomikoen txostena</b>	Administrazioaren betebeharrak eta Gobernu Programan definitutako ardatz, konpromiso eta helburuekin lotura. Egoeraren diagnostikoa eta plana indarrean jarriko den testuinguruaren eta esperotako bilakaeraren deskripzioa. Jarduera arlo eta eremu nagusien zein Eusko Jaurlaritzari dagozkion ondorio garrantzitsuak dituzten bestelako arloen zehaztapena. Sail edo erakunde ezberdinen arteko koordinazio beharra edo aukera. Ekonomia eta aurrekontuekin lotutako funtsezko arloak.
<b>2013ko Euskadiren ingurumen-profila; ingurumen-adierazle nagusiak</b>	Ingurumenaren egoeraren bilakaerari buruzko ikuspegi globala eskaintzen du ondorengo eremu tematiko hauei lotutako adierazle esanguratsu sail baten bitartez: klima-aldaketa, airea, ura, lurzorua, biodibertsitatea, materialen fluxua eta hondakinak.
<b>Euskadiren ingurumen-errendimendu adierazlea</b>	Txostenak Euskadiko Ingurumen Errendimenduaren Adierazlearen (EPI) kalkulua jasotzen du. EPIa nazioarteko erreferentzia bat da ingurumen-jasangarritasuna ebaluatzeko.
<b>2011-2014 aldirako III. IEPren eta 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiaren ebaluazioa</b>	2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiaren indarraldi mailaren eta 2011-2014 aldirako III. Ingurumen Esparru Programaren ezarketa mailaren ebaluazio-txosten independentea.
<b>Euskadiko baliabideen produktibitatea</b>	Euskadin baliabide materialen kontsumoak izan duen bilakaera aztertzen duen txostena. Baliabide horien artean lehengaiak daude, hala nola erregaiak, mineralak eta metalak, baina baita elikagaiak, lurra, ura, biomasa eta ekosistemak ere.
<b>Euskadiren 2030eko ingurumen-eszenatokiak</b>	Ingurumen-politikak planteatzen dituen galdera nagusiei erantzuten die. Zer bilakaera izango du ingurumenak Euskadin datozen urteotan? Zer faktorek izango dute eragin handiena? Zer erronkari egin beharko die aurre ingurumen-politikak epe ertain eta luzera?
<b>Ekonomia berdea Euskadin</b>	Ekonomia berdearen kontzeptua eta euskal ekonomiak norabide horretan emandako urratsak aztertu dira eta aurrera egiteko gidalerroak ezarri dira.
<b>Plangintzaren barne-erlazioak</b>	Eusko Jaurlaritzaren plan estrategiko desberdinen artean dauden loturak eta koordinazioa jasotzen ditu.

Oharra: Txosten guztiak eskura daude Eusko Jaurlaritzaren ondorengo web orrian: [www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus)



Dokumentu horietan oinarrituta eta «*Ondo bizi, gure planetaren mugak errespetatuz*» izenburuko 2020ra arteko Europar Batasunaren Ingurumen arloko VII. Ekintza Programa Orokorretik ondorioztatzen diren gidalerroak kontuan hartuta, parte-hartze prozesu dinamiko eta aktibo bat gauzatu da, administrazioen, intereseko taldeen eta herritarren elkarlanarekin<sup>5</sup>. Lankidetzaren prozesu hori gizarte berrikuntzako printzipioak eta teknikak integratuz garatu da: hainbat metodologiaren eta teknika berritzaileen erabilpena, emaitzetara orientatzea, estrategia eta helburu kolektiboen bilaketa, gobernantza eta gardentasuna eta lankidetzaren publiko-privatua bultzatzea.

## IEP 2020 ELABORATZEKO PARTE-HARTZE PROZESUAREN SINTESIA

### Parte-hartze prozesuaren helburu nagusiak:

- Gobernuaren Zuzendaritza taldeak: eremu estrategikoa mugatzea eta Gobernuaren plangintza estrategikokoarekiko koherentzia ziurtatzea.
- Administrazioetatik: IV. IEP 2020ren eraikuntzan zuzenean parte hartzea eta berorren egikaritze partekatuan konprometitzea eta erantzunkidetzea.
- Intereseko taldeen eta herritarren aldetik: lankidetzaren espazio hori baliatzea xede hauetarako:
  1. Esparru Programa berriari buruzko informazioa ematea;
  2. gizartearen erantzuna aktibatzea; eta
  3. gizartearen konprometitzea lurralde jasangarri baten balioa hedatzen eta sentsibilizatzen.

### Datu nabarmenenak:

- Euskal administrazio desberdinetako 100 arduradun –teknikari eta politikarien artean– baino gehiagorekin lan egin da elkarlanean.
- 8.000 pertsona baino gehiagori eman zaie informazioa zuzenean.
- Enpresaren eta ezagutzaren eremuko zein gizarte-mugimenduetako 110 eragile bildu dira, aurrez aurre zirela, eta beren gogoetak eskaini dituzte IV. IEP 2020 eraikitzeko.
- 900 pertsona eta/edo erakunde baino gehiagoren ekarpenak bildu dira.
- Oro har, 1.000 ekarpen baino gehiago jaso dira IV. IEP elaboratzeko.

### Parte-hartze prozesuan gauzatutako jarduerak:

#### Eusko Jaurlaritzan:

- Parte-hartze prozesua aurkezteko bilera Lehendakariaren Sail desberdinetako Zuzendaritzekin.
- Laneko tailerrak Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Zuzendaritzekin.
- Bilera parte-hartzaileak Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoetako zuzendaritzekin.
- Bilera prozesuan inplikaturako Sailburuordeekin.

#### Foru-aldundietan:

- Bilera bateratua 3 aldundiekin.
- Bilera parte-hartzaileak aldundiekin.

#### Udaletan:

- Udalsarea 21 Lantaldearen aparteko bilera
- Elkarriketak udalerriko ingurumen-arduradunekin.

<sup>5</sup> Ikus III. eranskina. IEP 2020 elaboratzeko parte-hartze prozesuaren txostena.

#### **Intereseke taldeekin eta herritarrekin:**

- Prozesuari bultzada Irekia web plataforman.
- Hezkuntza esparrura hurbilpena: on-line galdeketa ingurugeletarako eta Eskolako Agenda 21aren txosten laburtua 459 ikastetxetan.
- Ingurumen Topagune bat egin zen enpresa eremuarekin.
- Open space bat egin zen herritarrekin eta intereseke taldeekin.
- Informazio-puntuetako kanpaina (Unibertsitatea, interpretazio-zentruak, eta beste).
- Mailing-a intereseke taldeei.

#### **Interes bereziko eremuak:**

- **Erantzunkidetasun publiko-pribatua:** parte hartu duten eragileak bat datoz esatean garrantzitsua dela erantzunkidetasun formulak aurkitzea eragile publiko eta pribatu guztiek jokabide jasangarriagoak abian jar ditzaten (ereduzko administrazioa sustatzea, herritarrengan eta enpresetan kontsumo arduratsua indartzea...).
- **Eraginkortasun energetikoa:** euskal gizarteak lehentasunezkoak jotzen ditu energia kontsumoa maila guztietan (etxean, enpresan, aisialdiko guneetan, erakunde publiko eta pribatuetan) murriztera eta optimizatzera bideratutako neurri guztiak.
- **Biodibertsitatea-ekosistemen zerbitzuak:** Euskadiko animalia- eta landare-espezieen babesa da euskal gizartearen lehentasunetako bat. Herritarrek biodibertsitatea galtzearen eta ekosistemak hondatzearen aurka borrokatzea proposatzen dute kapital naturalari (ekosistemen zerbitzuak) balioa ematea erraztuko duten tresna berrituen bidez.
- **Lurralde osasungarria:** beharrezkoa ikusten da ingurumen-arazoetatik datozen giza osasunerako arriskuen kontrol handiagoa izatea, bereziki, airearen kalitatea, kontsumitzeko urarena, kutsadura akustikoa eta ingurumen-kutsadurako beste bektore batzuk, horien artean direla erradiazio elektromagnetikoak, produktu kimikoak, eta beste hainbat.
- **Hezkuntza:** beharrezkotzat jo da ingurumenaren jasangarritasuna hezkuntzako/prestakuntzako etapa guztietan txertatzea.
- **Baliabide-eraginkortasuna:** ekonomia eta ingurumena, zikloak itxita eta lehiakortasun faktore gisa, lotzeko beharra nabarmendu da.

## **1.7. 2020RAKO INGURUMEN ERRONKAK**


Hurrengo urteetako Euskadiko ingurumen-politikaren bilakaera hainbat faktoreren azterketan oinarritu behar da. Alde batetik, beharrezkoa da zehazten saiatzea zein izango den Euskadiko ingurumenaren bilakaera datozen urteotan; bestalde, bilakaera horretan eragin handiena izango duten faktore exogenoak identifikatu behar dira. Azkenik, funtsezkoa da definitzea zein izango diren ingurumen-politikak epe ertain-luzera aurrez aurre izango dituen erronkak, 2020ari begira ekintza programa marrazteko.

Hurrengo urteetan ingurumenari aurreikusten zaion bilakaera ez da nazioarteko organismoek gure lurraldea kokatuta dagoen testuinguru geografikorako egiten dituzten aurreikuspenen oso bestelakoa. Egia bada ere ingurumen-kalitate altuko egoera batetik abiatzen garela, oraindik hautematen dira hobekuntza-ibilbide argia duten ingurumen-esparruak, herritarrak, izan ere, gero eta zorrotzagoak baitira ingurumen-kalitateari dagokionez.

Abiapuntu dugun ingurumen-kalitateko egoerari, ingurumenean inpaktua izango duten faktoreen identifikazioa gehitu behar zaio, horiek baldintzatuko baitute ingurumen-politikaren norabidea. Hala, faktore giltzarri gisa identifikatzen dira gobernantza, egoera ekonomikoa edota lurralde-antolamenduaren kudeaketa. Horrez gainera, ingurumen-eremu tematiko bakoitza kontuan harturik, eredu energetikoaren eraldaketari, ekonomia zirkularrari eta mugikortasunaren kudeaketari eman

zaie lehentasuna. Laburturik, tradiziozko ingurumen-politikatik beste politika berri baterako trantsizioa eraginkortasunean irabaziak bilatuzetik sistema beraren aldatetara eboluzionatzeko premian gauzatuko da, non ingurumen-hezkuntzan oinarritutako kontsumoko eredu berriak definitu beharko baitira.

Horrela, Euskadiko ingurumen-bilakaeraren perspektibak aztertzearen, garatu den parte-hartze prozesuaren –non adituaren ezagutza eta herritarren interesa eta konpromisoa batzen diren–, Ingurumenaren Lege Orokorrak zehazten duen lege-esparruaren, eta 2002ko Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiaren garapen mailaren emaitza gisa, estrategia hori definitzen zuten ingurumen Helmuga eta Beharrezko Baldintzetatik ingurumen Erronka berrietarako trantsizio naturala gertatu da.



1.5. grafikoa. Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiako Helmugetatik ingurumen Erronka berrietarako trantsizioa

Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiako 5 Helmugen eta 5 Beharrezko Baldintzen indarraldi eta inplementazio maila aztertzeak ondorioztatzen da haietako batzuk zuzenean jasotzen direla oraindik 2030eko ingurumen Erronketan. Aurrerapenak egin badira ere, berorien garrantziak Helmuga horiek lantzen segitzera behartzen du, nahiz eta haien inguruan sortutako jakintza berriak haiei ekiteko era berriak ekarri dituen. Talde honetan daude:

- 1. Helmuga, Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea; Osasuna eta Ingurumena izeneko ingurumen Erronkan dago jasota.
- 2. Helmuga, Baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua; Lurralde lehiakorra–Baliabideen eraginkortasuna izeneko ingurumen Erronkan jasotzen da.
- 3. Helmuga, Izadia eta biodibertsitatea babestea; Kapital naturala–Biodibertsitatea Erronkan dago islatuta.
- 4. Helmuga, Lurraldeko oreka eta mugikortasuna; Energia–Klima-aldaketa eta Lurralde lehiakorra–Baliabideen eraginkortasuna erronketan islatzen da.
- 1. eta 2. Beharrezko Baldintzak (Ingurumenaren aldagaia beste politiketan txertatzea eta Indarrean dagoen legeria eta bere aplikazioa hobetzea) Gobernantza–Erantzunkidetasun publiko-pribatua Erronkan daude jasota.

Bestalde, testuinguru sozio-ekonomikoan eta ezagutza berrietan izandako aldaketen, Europako eta nazioarteko ingurumen-politiketan dauden ikuspegi berrien eta Estrategiaren egikaritze maila beraren kariaz, birformulatu egin behar izan dira, ikuspegian aldaketa esanguratsuak sartuta, nolahi ere, 2030eko ingurumen Erronketan jasota segitzen duten gainerako Helmugak eta Beharrezko Baldintzak:

- 5. Helmuga, Klima-aldaketaren eraginari mugak jartzea, eredu energetikoaren eraldaketari ekiten dion ingurumen erronka bilakatu da, energia eta klima-aldaketa multzo bakar batean sartzearen birtartez; bestalde, klima-aldaketak jasota egon behar du 2020rako ekintza programaren eremu guztietan.
- 3. eta 5. Beharrezko Baldintzen ikuspegia (Merkatua ingurumenaren alde jardutera bultzatzea eta Ingurumenaren ikerketa, garapena eta berrikuntza) aldatu egin da, orain ingurumenak merkatuaren zerbitzuko lehiakortasun-faktore gisa duen balioari ematen baitzaio garrantzia; Lurralde lehiakorra–Baliabideen eraginkortasuna ingurumen erronkan jaso dira aipatutako beharrezko baldintzak.
- 4. Beharrezko Baldintza, Herritarrak, Administrazioa eta enpresak gaitzea eta erantzunkidetzea, Hezkuntza–Konpromisoa etorkizuneko belaunaldiak izeneko ingurumen erronkan islatu da, kontsumo eredia aldatzearen alde hautematen den irizpenaren erantzun gisa.

Laburbilduz, datozen urteotan Euskadiko ingurumen-politikaren norabidea markatuko duten **6 ingurumen erronka berriak**, binomio modura, ondorengo hauek dira.

Erronka hauetako batzuk arazo iraunkorrak dira, konplexutasun eta ziurgabetasun handikoak, eta elkarren mendekotasuna dute (adibidez, biodibertsitatea eta klima-aldaketa). Gainera, tresna berrituak beharko dituzte, ezagutzaren garapenean eta ustiaketan oinarritu beharko direnak, finantzaketa-iturri berrietan (fiskalitate berdea eta merkatuko tresnak) eta prozedurak erabat sinpletzen dituen eta transakzio-kostuak minimizatuko dituen gobernantza publiko bikain batean, zeinak erantzunkidetasun publiko-pribatua lehenestean gainera, herritarrak gero eta gehiago sensibilizatzearen aldeko apustua egin beharko baitu euskal gizarte osoaren hezkuntzan azentua jarririk.

## 2020rako INGURUMEN ERRONKAK

- 1. Kapital naturala–Biodibertsitatea.** Modu jasangarrian garatzeko eta hazteko behar dugun kapitalaren osagai gisa hartzen da izadia, eta arreta berezia jartzen zaie ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuei. Izadiaren kudeaketa konplexua eta elkarren mendekoa denez, beharrezkoa da aldaketa globalaren kontzeptua sartzea. Erronka honetan aurrera egiteak klima-aldaketaren eraginetara egokitzen eta baliabideen erabileran eraginkortasuna hobetzen lagunduko digu.
- 2. Energia–Klima-aldaketa.** Eredu energetikoaren eraldaketa eta karbono isurketa gutxiko ekonomia baterantz aurrera egitearekin hark duen erlazioa da ezarritako erronketako bat. Hori guztia, klima-aldaketaren erronka globalaren ildotik. Energia erabiltzeko eta inpaktuak arintzeko neurriak hartzeko beste modu bat sorraziko du, eta mugikortasunean eta hiri-birgaitzean arreta berezia jarriko du. Gas naturala, energia berriztagarriekin batera, ziurrenik funtsezko faktorea izango da eskarirako, ekonomiarako eta jasangarritasunerako, energiaren eta ingurumenaren arloetan.
- 3. Osasuna–Ingurumena.** Sozio-ekonomiako eta ingurumenaren arloko baldintza orokorrek eragina dute bizitzeko eta laneko baldintzetan, azken hauek oinarritzko zerbitzuak eta baliabideak lortzearen mende baitaude; faktore horiek, berriz, eragina dute gizarteko eta erkidegoko sostenguan, bizitzako ohituretan eta, azkenik, norberaren eta familiako faktoreetan. Testuinguru horretan, ingurumena erabakigarria da osasun publikoari dagokionez eta, hortaz, sektore giltzarria da gizartean eta ekonomian inpaktuak dituzten gaixotasunak prebenitzeko.
- 4. Lurralde lehiakorra–Baliabideen eraginkortasuna.** Lurralde baten lehiakortasunaren eta ingurumenari balioa ematen dion prebentzio-eskema batean oinarritutako ingurumen-politikaren arteko erlazioan aurrera egitea da Europatik markatutako erronka erkideetako bat. Esparru horretan, baliabide materialen eraginkortasuna eta ekonomiaren zirkulartasuna berrikuntza- eta lehiakortasun-iturri dira, bai lurraldeentzat eta bai enpresentzat, merkatu globalean. Fabrikazio aurreratuen alorreko eta energiako berrikuntzak zuzeneko lotura du ingurumenaren inguruko kontsiderazioekin.
- 5. Hezkuntza–Konpromisoa etorkizuneko belaunaldiekin.** Hezkuntza inklusiboa eta kalitatekoa erreminta ahaltsuenetakoa da ingurumenean beharrezkoak diren eraldaketak bideratzeko, egungo belaunaldia etorkizuneko belaunaldiekiko konpromiso etikoa hartzea eramango duten oinarriak ezarri ahal izateko. Erronka hori zehazteko aurrera egin beharko da gure gazteria ingurumen arloko erabakiak hartzea gehitzeko prozesuan, belaunaldien arteko parte-hartze eta erantzunkidetasun maila handiagoa posible izan dadin.
- 6. Gobernantza–Erantzunkidetasun publiko-pribatua.** Erronka honek administrazio desberdinen arteko eta maila guztietako koordinazio egiazko eta eraginkor baten premia definitzen du. Elkarrekin erabaki eta koordinatutako politika publikoen planteamenduak haien onurak handitzeko bidea ematen du. Administrazio sinpleagoa eta eraginkorragoa lortzea, enpresari lehiakorragoa izaten eta herritarrei arduratsuagoak izaten lagunduko diena.

Erronka horien esparruan, ingurumen-politikak hobetu egin beharko luke Euskadiko ingurumenaren egoerari buruz dagoen pertzepzioa, dezentez okerragoa baita jendearen ustea ingurumen-adierazleek islatzen duten errealitatea baino. Dinamika horretan, beharrezkoa da kontsumo eredu berri bat (kontsumo arduratsua) proposatzea eta sustatzea, ekoizpen eredu (ekoizpen jasangarria) bultzatzen den intentsitate berarekin, gutxienez, biak baitira elementu giltzarriak epe ertain edo luzera, ingurumenari dagokionez; ingurumen-politikaren arreta aldatu egingo da horrela, isurketen kontrolatik haiek sortzen dituzten inpaktuen kudeaketara.




---

**HOBETO  
BIZI, ENPLEGU  
GEHIAGO SORTU  
ETA MUNDUAN  
PRESENTZIA  
HANDIAGOA IZAN,  
INGURUMENA  
ERRESPETATUZ**

---

## 2.1. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

Euskadik, munduko eta Europar Batasuneko joera nagusiekin bat etorririk, bere ingurumen-politika zabaldu nahi du, konbentziturik baitago, egon ere, ingurumen osasungarria bere nortasun propioarekin eta gizarte oparo, moderno, aurreratu eta jasangarri baten garapenarekin estuki lotuta dagoela. (Ikus 2.1 grafikoa).



2.1. grafikoa. 2020rako IEPre motibazio estrategikoa

IV. IEP 2020 programak joera aldaketa bat ezartzen du euskal ingurumen-politikan (Ikus 2.2 grafikoa). Euskadik ibilbide luzea egin du ingurumenaren egoera aldatzeko, eta gizaki-, gizarte- eta erakunde oinarriak ezarri ditu Europako herrialde garatuenekin homologatzeko ingurumenari buruzko parametro eta adierazle garrantzitsuenetan<sup>6</sup>.

Gaur egun, Euskadi ingurumen-politikan aldaketa kualitatiboa egiteko moduan dago. Hala, ingurumen osasungarria eta oparotasun ekonomikoa eta soziala ekonomia lehiakorraren, berdearen eta berritzailearen emaitzekin lotuta egongo dira ezinbestean. Ekonomia horrek, gainera, ez du baliabiderik alferrik galduko, enplegua sortuko du eta mundu osoan planteatu diren ingurumen- eta jasangarritasun-erronka handiak lortzen lagunduko du. Hau da, lurralde jasangarri baterantz aurrera egiten.

Ildo horretan korritu beharreko bidea luzea da eta egiten den planteamendu goranahiak eskatzen du herritarrek konbentziturik eta arduraz jokatzeko, jakinaren gainean egonik zer nolako inpaktua eragiten duten haiek hartutako erabakiek. Euskadi prestatuta dago bide berriari erabakimenez ekiteko.



2.2. grafikoa. Euskal ingurumen-politika. Eraldaketa handi baten etapak

<sup>6</sup> Ikus II. eranskina. 4. diagnostiko-dokumentua: 2013ko Euskadiren Ingurumen Errendimenduaren Adierazlea.

Ingurumen-politikaren etapa berri honen laburpen eta aspirazio gisa, Euskadik **Ikuspegi** bat ezartzen du, lurraldean –eta, hortaz, ingurumenean– eragingo duten politika publikoen multzoa inspiratzeko, ekintza erabaki baterako tresnak orientatzeko eta pertsonak, enpresak eta erakunde publiko eta pribatuak konprometitzeko balio dezan, erantzunkidetasun ahalegin berritu batean.

## IKUSPEGIA

**Euskadiko herritarrek lurralde eta ingurumen osasungarria dute, harekin konprometiturik daude eta harro sentitzen dira hura berreskuratu izanaz, etorkizuneko belaunaldiei utzi ahal izateko.**

Hori guztia industrian oinarritutako **lurralde eta ekonomia berde**, lehiakor eta berritzaile baten alde apustu egin izanaren ondorioa da. Apustu horrek, gainera, **lan aukera ugari** sortzea ahalbidetu du, **karbono isurketa apaleko** testuinguru global batean, **kapital naturala** babestea eta haren balioari garrantzia ematea konbinatzen direla.

## 2.2. BALIOAK

Ikuspegi hau etika, erantzukizuna eta elkartasuna balioetan oinarrituta dago, erreferentzia gisa ezarri baitziren balio horiek Euskadi 2020, Giza Garapena eta Hazkunde Jasangarria izeneko Eusko Jaurlaritzaren proiektuan. Euskadiren garapen ereduari eusten dioten oinarritzko zutabe horiek irakurketa estrategikoa dute ingurumenaren arlotik (Ikus 2.3 grafikoa).

### BALIOAK

#### ETIKA

Esaten dena egitea

- Ingurumen-balioa gehitzea.
- Ingurumen-irizpideak politika guztietan integratzea.
- Genero-berdintasuna.

#### ERANTZUKIZUNA

Sektore publikoaren kudeaketa eraginkorra eta zorrotza

- Bikaintasuna gobernantzan.
- Herritarren parte-hartzea eta enpresen eta inplikaturako beste eragileen lankidetzaren sistematikoa.
- Zuhurtzia printzipioa aplikatzea.
- Plangintza estrategikoa.
- Eskura dagoen zientzia-erabiltzea onena erabiltzea.

#### ELKARTASUNA

Konpromisoa pertsonekin

- Pertsonen osasuna babestea, oinarritzko eskubide bat.
- Garapen bidean diren herrialdeekin elkartasuna.
- Etorkizuneko belaunaldiekin konpromisoa.

2.3. grafikoa. Ingurumen-politikaren euskarri diren balioak



**ETIKA.** Etikak «*esaten dena egitea*» eskatzen du eta, ingurumenaren ikuspegitik, horrek esan nahi du:

- Ingurumen-balioa gehitzea. Gizarteak eskubidea du lurzorua, airea edota ura kutsatuz guztion ondarea kaltetzen duenari eragindako kaltearen erantzukizuna bere gain harrarazteko. Ingurumen kostuak ez dira sozializatu behar: Alderantziz, kutsatzen duenak bere gain hartu behar du dagokion kostua. Ildo horretan, merkatuko tresnak<sup>7</sup> oinarrizko erremintak dira ingurumen-balioa gehitzeko bidean urratsak emateko.
- Ingurumen irizpideak politika guztietan integratzea. Ingurumena zeharkakoa da sektore eta giza jarduera guztiekiko. Horregatik, ingurumen-irizpideak guztiz integratuta egon behar dute euskal herri-administrazioko maila eta eremu guztietako politika, plan eta programetan.
- Genero-berdintasuna. Garapen jasangarriak pertsona guztien arteko berdintasunaren aldeko konpromiso tinkoa eskatzen du. Ekimen bereziak behar dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egiazkoa eta eraginkorra bermatzeko bizitza publiko eta pribatuko zeinahi espaziotan eta, bereziki, ingurumenari, haren kudeaketari eta dituen inpaktuei dagokienez.

**ERANTZUKIZUNA.** Sektore publikoaren kudeaketa eraginkorra eta zorrotza eskatzen du, baita herritarren konpromisoa ere. Ingurumenaren ikuspegitik, horrek esan nahi du:

- Bikaintasuna gobernantzan. Politika, oro har, eta ingurumen-politika bereziki gizartearekiko konpromiso bezala ulertzen da, ondorengo hauetan oinarrituta: gardentasuna, parte-hartzea, emaitzei begira lan egitea, kontuak ematea, sinplifikazioa eta politika guztien arteko koherentzia. Bikaintasunera bidean aurrera egiteko, aldaketa hori sustatuko duen aitzindaritza politikoa beharko da, baita Administrazioaren jarrera eredugarria ere. Gura lurraldeko ingurumenaren gobernantzan bikaintasunerantz urratsak emateak, beraz, Administrazioa eta gizarte guztia konprometitzen du.
- Herritarren parte-hartzea eta enpresen eta inplikaturako beste eragileen lankidetzaren sistematikoa. Erabakiak hartzeko prozesuetan antolatutako gizarte zibilaren parte-hartze aktiboa da modurik onena ekintza publikoaren gardentasuna bermatzeko eta abian jarritako ekintzarako tresnen eraginkortasuna susperrarazteko. Gizarte zibila, oro har, eta ehundura ekonomikoa, bereziki, gure ekonomiaren eragile giltzarriak dira eta gauza izan behar genuke berorien lankidetzaren aktiboa lortzeko.
- Zuhurtzia printzipioa aplikatzea. Erabaki jakin baten inguruko zentzuzko zalantza zientifikoak izanez gero, zuhurtzia printzipioa nagusituko da ingurumenaren edota pertsonen gaineko balizko kalteak eragozteko. Ziurtasun eza ez da nahikoa izango, hala ere, pertsonen osasuna edo ingurumena babestera bideratutako edozein jardura abian jartzea atzeratzeko edo eragozteko.
- Plangintza estrategikoa eta denboran jarraitasuna duen ekintza. Ingurumen-jasangarritasunerako trantsizioa, Euskadin, denboran jarraitasuna duen ahaleginaren, borondate desberdinak integratzearen, hainbat eta hainbat neurri hartzearen eta eskala desberdinetako jarduerak burutzearen emaitza izango da. Aldaketa garrantzitsuak egin beharko dira hainbat arlotan: energia politikan, garraio sisteman, nekazaritza eta abeltzaintza eremuan, gure lurraldeko herri eta hirien eraketa dinamiketan, gure industriek duten ekoizteko moduan, hondakinen kudeaketan edo ur eta energia kontsumoan etxeek jartzen duten kontuan, eta pertsonen ondasun eta zerbitzuak erosteko eguneroko erabakietan.
- Eskura dagoen zientzia-ezagutza onena erabiltzea. Euskadiko ingurumen-politikak bat egiten du erabat Europar Batasunaren eta Nazio Batuen Erakundearen ingurumen-politikekin. Bi erakunde horien ingurumen-politikak mundu mailan eskuragarri dagoen zientzia-ezagutza onenean oinarritzen direnez, Euskadiko ingurumen-politikak ere oinarri zientifiko sendoa du atzean. Hori bai, aurrerantzean ezagutza horretan are gehiago sakondu beharra dago lorpen berriak gauzatzeko.

<sup>7</sup>Kutsadurari balio ekonomikoa jartzen diotenak, adibidez, ingurumen-zergak.

**ELKARTASUNA.** Helmuga eta eskubide erkideen alde pertsona guztiak elkartzea eskatzen du eta, ingurumenaren ikuspegitik, horrek esan nahi du:

- Pertsonen osasuna babestea, oinarritzko eskubide bat. Gure ingurunean, ingurumenaren arloko hainbat faktore pertsonen osasunean eragina izaten ari direla esateko behar hainbat zientzia-ezagutza badago. Ingurumena erabakigarria da osasun publikoari dagokionez. Horregatik, pertsonen osasuna babestea oinarritzko eskubidetzat jotzen du euskal ingurumen-politikak, sektore zaugarrienak –haurrak eta adinekoak– kontuan harturik. Ondorioz, osasunaren babesa gizarteak dituen beste eskari eta interes batzuen gainetik jarri behar da.
- Garapen bidean diren herrialdeekin elkartasuna. Gure garaiko ingurumen arazo handiak herrialdeen arteko mugez gaindikoak dira. Ekonomia garatua duten herrialdeek –horien artean dago Euskadi– Hegoaldeko herrialdeak deituekin aktiboki lankidetzan aritzeko erantzukizuna dute, ekonomia eta gizarte jasangarri baterako trantsizioa egiten laguntzeko, bereziki, klima-aldaketaren ondorioak prebenitzeari eta ahal den neurrian arintzeari dagokion gutzian.
- Etorkizuneko belaunaldiak konpromisoa. Garapen jasangarriak egungo belaunaldiak etorkizunean etorriko direnekin konpromisoa izatea eskatzen du. Hurrengo hau ulertu eta onartu behar dugu: kapital naturala, dibertsitate biologikoa, paisaiak, lurraldea eta ingurumena zaindu, babestu eta gordetzeko ardura dugu gure mutiko eta neskatok bizitzaz, edertasunez eta aberastasunez betetako Euskadi bat jaso dezaten.

### 2.3. ESPARRU ESTRATEGIKOA

Ingurumen-erronketatik **6 Helburu Estrategiko** eratortzen dira (4 lehenengoak, ingurumen-garapen jasangarriaren aldeko gai tematikoetatik lortuak eta 2 azkenekoak gobernantza sistemarekin lotura dutenak). Hori guztia, eraginkortasun esparru batean, kontuan izanik ingurumenean zeharka eragiten duten politika publikoen koherentzia maximoak soilik zuzen dezakeela halako efizientzia (Ikus 2.4 grafikoa).

Helburu estrategikoak definitzen dute Euskadik 2020an okupatu nahi duen tokia. Helburu bakoitzak bere eremuko ingurumen-asmoa ordezkatzeko du, eta ingurumen-politikaren plangintzan, norabidea, koherentzia eta koordinazioa markatuko duten jardura gama zabal bat beharko da.

6 helburu estrategikoak parte-hartze prozesuan inplikaturako eragileek 2020rako lehentasunezkoak jo dituzten **75 jardueratan** zabaldu eta zehaztu dira. Kontuan izanik 2017rako aurreikusten dela tarteko ebaluazioa egiteko data, jardueran bertan adierazten dira<sup>8</sup> lehen aldi horren barruan hasi edo garatu beharrekoak. IV. IEP 2020 behin onartu ondoren, jardura horietako bakoitza xehatu eta zehaztu egingo da gauzatu dadin eta bere jarraipena egin ahal izateko.

<sup>8</sup> 2017rako lehentasuna.

## 2020rako IV. IEPren ESPARRU ESTRATEGIKOA

### INGURUMEN-POLITIKAREN KONPROMISOAK

1.  
Kapital naturala  
Biodibertsitatea

2.  
Energia-Klima  
aldaketa

3.  
Osasuna  
Ingurumena

4.  
Lurralde lehiakorra  
Baliabideen eraginkortasuna

5.  
Hezkuntza  
Konpromisoa etorkizuneko  
belaunaldiekin

6.  
Governantza  
Erantzukidetasun publiko-pribatua

### HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. helburu estrategikoa.  
**Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratzea, ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak gerizatzeke.**

2. helburu estrategikoa.  
**Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurora egitea.**

3. helburu estrategikoa.  
**Gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea.**

4. helburu estrategikoa.  
**Lurraldearen jasangarritasuna handitzea.**

5. helburu estrategikoa.  
**Politiken koherentzia bermatzea ingurumen-integrazioa areagotuz.**

6. helburu estrategikoa.  
**Euskadiren nazioarteko proiektzioa eta erantzukizuna sustatzea.**

2.4. grafikoa. 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren Esparru Estrategikoa



---

**INGURUMEN  
ESPARRU  
PROGRAMAREN  
HELBURU  
ESTRATEGIKOAK**

---

## 1. HELBURU ESTRATEGIKOA

# GURE KAPITAL NATURALA BABESTEA, KONTSERBATZEA ETA LEHENGORATZEA, EKOSISTEMEK ESKAINTZEN DIZKIGUTEN ZERBITZUAK GERIZATZEKO

**IV. IEPk planteatzen du, helburu estrategiko gisa, 2020rako lortu dadila Euskadiko ekosistemen narriadurari galga jartzea. Lehorreko eta itsasoko habitat nagusiek hobetuta izan dezatela beren egoera eta gaitz printzipalak –hala nola eremu batzuen isolamendua eta espezie inbaditzaileak– modu integral eta sistemikoan kudeatu daitezela, eskumena duten administrazio guztien arteko lankidetzaz estuari esker.**

Gure ongizatea eta bizi kalitatea kapital naturalean –hau da, biodibertsitatean– oinarritzen dira, ekosistemak barne direla, funtsezko hainbat ondasun eta zerbitzu ematen baitizkigute, hala nola lurzoru emankorra, funtzio anitzeko basoak, lur eta itsaso emankorrak, kalitate oneko ur geza eta aire garbia, polinizazioa, klimaren erregulazioa, eta hondamendi naturalen aurkako babesa.

Gainera, helburu hori bat dator Europar Batasunaren 2020rako Biodibertsitateari buruzko Estrategiarekin, non hainbat helmuga eta neurri ezartzen baitira biodibertsitatearen galera eta zerbitzu ekosistemikoen narriadura geldiarazteko eta, ahal den neurrian, haiek lehengoratzeko.

Euskadik esfortzu luzea eta jarraitua eraman du aurrera bere kapital naturala babesteko eta aktiboki kudeatzeko, honako hauek gailentzen direla: administrazio eskudunek Natura 2000 Sarean biltzen diren naturguneetan egindako lana, eta Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuta dauden espezieen kudeaketa. Hala ere, bide luzea korritu behar da oraindik Euskadiko lehorreko eta itsasoko ekosistemak egoera onean egon daitezen eta biodibertsitatea nabariki hobetu dadin, Europar Batasuneko gidalerroetatik aldarrikatzen den bezala, horien asmoa, izan ere, biodibertsitatearen galera 2020rako geldiaraztea baita.

Egindako aurrerapenak gorabehera, ekosistema asko degradaturik daude edo modu ez-jasangarrian erabiltzen dira. 2013ko Euskadiren ingurumen-profilak adierazten du biodibertsitatea galtzen jarraitzen dugula eta ekosistemen parte bat (Euskadiko interes europarreko habitaten % 35ek kontserbazio egoera orokor txarra dute) degradatuta dagoela. Hori guztia hainbat motatako presioei zor zaie. Alde batetik, populazio trinkoa duen eta oso industrializatuta dagoen herrialde txiki baten eredu ekonomiko eta sozialaren presio indartsuak, non biodibertsitateari ez zaion ematen merezi duen lehentasun maila. Kanpoko espezie inbaditzaileek, esate baterako, klima-aldaketarekin batera, areagotu egin ditzakete gure kapital naturalaren gainean egiten dugun presioaren efektuak.

Lurraldeak ez du daukan kapital naturala bere osotasunean aintzat hartzen (batez ere, eremu babestuetako kapital naturalari jartzen diogu arreta). Beharrezkoa da gogoeta egitea bi norabidetan: lehenengoa, gure kapital naturalean eragiten dugun inpaktuari begira, eta bigarrena, zer aldaketa egin behar ditugun ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak behar bezala balioesteko. Lurzoruaren artifizializazioa eta zatikatzea, eta kapital naturalaren kontserbazioarekin bateragarri ez diren erabilerak dira giltzarrietako batzuk kudeaketa egoki bati ekiteko. Gure lurzoruaren artifizializazio maila handia da, nahiz eta egia den, bestalde, azken urteotan erritmoa moteltzen ari dela. Ildo horretan, Lurralde Antolamendurako Artezpideak eta haietatik eratorritako planak direla eta, urrats garrantzitsuak egin dira lurralde-antolamenduaren arloan. Plangintza horri esker, lurralde eredu orekatua eta herritarrentzat erakargarria artikulatu da.

Aurrerapen handiak egin dira lurzoruaren babesa bermatzeko orduan, lurzoru kutsatuen berreskurapenean, sentsibilizazio-ekintzetan, ikerketan eta kontroleko mekanismoen garapenean. Hurrengo urratsa lursail horiek berroneratzea, berorien balioa nabarmentzea eta eremu antropizatuak birgaitzea izango da, lurzoruaren erabilpen handiagoa eragozteko.

Ez dago dudarik gizartea gero eta kontzientzia handiagoa hartzen ari dela ekosistemen garrantziaz eta haiek ematen dituzten zerbitzuez, eta beharrezkoa jotzen duela haien narriadurari galga jartzea, baina ez da oraindik lortu kapital naturala aprobetxatzeko eta haren balioa aitortzeko beharrezkoa den erantzunkidetasun eta konbentzimendu maila.

Ildo horretan, oztopagarri gertatzen da Euskadiko biodibertsitatearen eta ekosistemen egoerari buruzko informazio gabezia: biodibertsitatearen egoera objektiboa neurtzeko datu eta teknika zientifikoetan oinarritutako segimendu-sistema estandarizatu bat falta da, are gehiago kontuan hartzen badugu ekosistemak ez direla estatikoak izaten.

Halaber, beste oztopo handi bat da merkatuak ez diela balio ekonomikorik izendatzen ekosistemen eta biodibertsitatearen kontserbazioak dakartzan onura publiko garrantzitsuei. Aldiz, izendatzen die balio ekonomikoa ondasun eta zerbitzu pribatuei, berorien ekoizpenak ekosistemak kaltetu ditzakeen arren. Ekosistema-zerbitzuen ebaluazioa funtsezko abiapuntua da gizakiek ekosistemei eta haien ematen dituzten zerbitzuei eragiten dieten inpaktuak eragozteko edo minimizatzeko lehentasunezko ekintzak identifikatzeko. Beharrezkoa da jakitea zer zerbitzu ematen dituzten, zerbitzu horiek zer egoeratan dauden kuantifikatzea, eta lan egitea zerbitzu horiek mantentzera edo hobetzera bideratutako neurri publikoak zein pribatuak aplikatzeko.

Gure kapital naturala babesteko, kontserbatzeko eta lehengoratzeko, jarduera hauetan zentratuko da IEP 2020ren ekintza estrategikoa:

---

### 1.1. Jarduteko lerroa: **Ingurune naturalaren kontserbazioa politika sektorialetan eraginkortasunez txertatzea**

---

#### **Jarduera nagusiak:**

1. Plangintza eta arautegi sektorial desberdinak berrikustea eta lerrokatzea, ekosistemak, haien fluxuak eta zerbitzuak (bereziki, nekazaritza-, basogintza- eta arrantza-politikan eta lurraldea antolatzeko plangintza-politiketan) kontserbatzea ahalbidetuko duten ingurumen-aldagaiak gehitzeko. Garrantzi bereziko kasu bat Natura 2000 Sarea eta ekosistemen zerbitzuak integratzea da.
2. Biodibertsitatea kontserbatzeko eta kudeatzeko politikan eskumena duten administrazioen arteko koordinazio operatiboa sendotzea. [2017rako lehentasuna].
3. Eskumenak dituzten eragile guztien artean ikuskapen koordinatu bat potentziaztea.
4. Ingurumen arloko Administrazioaren esku-hartzeen kostu eta onuren kuantifikazioa integratzea. [2017rako lehentasuna].

---

### 1.2. Jarduteko lerroa: **Ekosistemen eta haien zerbitzuen galerei mugak jartzea**

---

#### **Jarduera nagusiak:**

5. 2020rako Euskadiko Biodibertsitate Estrategia elaboratzea, klima-aldaketa kontuan hartuko duena, eskumena duten administrazioen artean. [2017rako lehentasuna].
6. Ingurune naturalaren kudeaketa-sistema moldagarriak ezartzea: eskura daitekeen ezagutza onena erabiltzea neurriak aplikatzeko, emaitzak berrikusi eta ebaluatzeko, zuzentzeko eta birdoitzeko.
7. Euskadiko kapital naturalaren egoerari buruzko informazio-sistema bat ezartzea. Sistemak bide eman behar du habitaten kontserbazio egoera objektiboki ezagutzeko, berorien segimendua egin eta, erantzun gisa, benetako premiekin bat datozen esku-hartze planak artikulatzeko. [2017rako lehentasuna].
8. Espezie mehatxatuen kontserbazio egoeraren segimendu eta azterketa mekanismoak hobetzea eta indartzea eta haien Kudeaketa Planen onarpena bultzatzea. [2017rako lehentasuna].

---

### 1.3. Jarduteko lerroa: **Lurzoruaren okupazioari galga jartzea, erabilera nahasketa eta espazio degradatuaren eraberritzea eta berrerabilpena erraztuz**

---

#### **Jarduera nagusiak:**

9. Lurralde-antolamendu adimentsu baten ezarketa bultzatzea, populazio-dentsitate handiagoak saritu ditzan, eta erabileren konbinazioa (lana, aisialdia, etxebizitza) eta lurzoru-kontsumoaren optimizazioa indartu ditzan, lurzoru horren berrerabilpena eta lehengoratzeari lehentasunak eman.
10. Ekosistemen zerbitzuak indartzea eremu degradatuak lehengoratzeko. [2017rako lehentasuna].
11. Azpiegitura berdeen kontzeptua gehitzea gure Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan. [2017rako lehentasuna].

---

### 1.4. Jarduteko lerroa: **Tresna ekonomikoak barne-hartzea Euskadiko kapital naturalaren kudeaketan**

---

#### **Jarduera nagusiak:**

12. Ekosistema-zerbitzuen ebaluazio- eta balorazio-sistemak indartzea eta gehitzea. [2017rako lehentasuna].
13. Lehen sektoreko laguntza ekonomikoen sistema nagusiek ekosistemen zerbitzuetan dituzten inpaktuak identifikatzea, dibertsitate biologikoaren kontserbazioa eta erabilpen jasangarrirako pizgarri positiboak aplikatzeko lana areagotuz eta, pixkanaka, egon litezkeen pizgarri kaltegarriak ezabatuz.

---

### 1.5. Jarduteko lerroa: **Lurraldean jarduten duten eragileak ekosistemen zerbitzuen garrantziaz konprometitzea eta sentsibilizatzea**

---

#### **Jarduera nagusiak:**

14. Lurraldearen kudeaketan (batez ere, lehen sektorean eta lurralde plangintza egiterakoan) biodibertsitatearen ikuspuntutik lagunkoia diren eguneroko praktiken ezarketa bultzatzea.
15. Ingurune naturalaren arloan, herritarrei zuzendutako informazioa, kontzientzia eta hezkuntza areagotzea, Izadia gure etxeetara eta gure herritarrei hurbilduz. [2017rako lehentasuna].
16. Habitata berreskuratzeko jardunbide egokien eskuliburuak prestatzea.



## 2. HELBURU ESTRATEGIKOA

# EKONOMIA LEHIAKOR, BERRITZAILER, KARBONO ISURKETA TXIKIKO ETA BALIABIDEEN ERABILPENEAN ERAGINKOR BATERANTZ AURRERA EGITEA

**IV. IEPk planteatzen du, helburu estrategiko gisa, 2020an Euskadik bere lehiakortasuna sendotzea karbono gutxiko ekonomia garatzen duen eta baliabideen erabilera eraginkorra eta jasangarria egiten duen hazkunde jasangarriago baten bidez, ingurumenak berrikuntzan eta espezializazio adimentsuan oinarrituta sortzen dituen merkatuko aukerak baliatuta.**

Ingurumena babestea eta zaintzea gure ekoizpen ereduko jarduera ekonomikoetan kontuan hartu beharreko faktore nagusietakoa bihurtu da azken urteotan. Erregulazio, lege eta ingurumen-politiken bidez, enpresek joko-arau berrietara egokitu behar izan dute eta hori, neurri batean, ingurumenean ahalik eta eragin txikiena duten produktu eta zerbitzu berriak garatzeko pizgarri bihurtu da. Ildo horretan, euskal enpresek ere jakin dute ikusten ingurumena lehiakortasun- eta bereizkuntza-faktorea bilakatu dela.

Euskadik beharrezkoa du berrikuntza, batetik, eraginkortasuna handitzeko baliabideen erabilpenean, eta lehiakortasuna indartzeko baliabideen prezioen igoerak, haien urritasunak eta lehengaiak lortzeko zailtasunek eta haien inportazioak egiteko mendekotasunak markatzen duten testuinguru batean. Bestalde, berrikuntzak, balio erantsi handiko merkaturako aplikazio berriak sortzeaz gainera, ingurumen hobekuntza nabarmena dakarten ondasun eta zerbitzu berriak sortzen laguntzen du. Zalantzarik gabe, ingurumenaren aldagaia berrikuntzaren benetako katalizatzaile bihurtuko da.

Europar Batasuneko politika industrial integratuak jasangarritasunaren aldeko apustua egin du, faktore erabakigarria baita Europako industria sektorearen espezializazioan eta bereizkuntzan. Etorbizuneko lantegietan eraginkortasun handiko prozesuak erabiliko dira energiaren eta materialen erabilerari dagokionez; material berriztagarriak eta birziklatuak erabiltzeaz gainera, negozio-eredu gero eta jasangarriagoak izango dituzte –sinbiosi industrialak, esaterako– materialak eta galdutako beroa eta energia berreskuratuzko.

Ingurumenaren hobekuntza da, gaur egun, enpresa berriak sortzeko bektore garrantzitsuenetako bat Europa lehiakorragoa, berdeagoa, karbono gutxiagokoa eta baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiliko dituen eraikitze inbertsio publikoak eta pribatuak baliatzeko sortzen ari diren nitxo berrietan. Uraren ziklo integralarekin, produktuen berrerabilpenarekin, materialak birziklatzarekin, ekosistemen zerbitzuak garatzearekin eta haien balioa aitortzearekin lotura duten azpiegiturak eta zerbitzuak dira esandakoaren adibide batzuk («*Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa*» eta «*Berrikuntzaren aldeko Europa*»).

Gainera, aukerak ez dira soilik pertsonaekintzaileentzat, enpresa-sare osoarentzat baizik, ekoberrikuntzarako motor ahaltsua baita ingurumena edonola ere. Mugikortasun jasangarria, energia eta klima-aldaketa, birziklapena edo gisako arloetan ingurumena hobetzen duen enpresa-berrikuntzak eta, zeharka hartuta, lehengaien eta materialen kontsumoan aurrezten duten enpresa guztiek beren produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko zuzeneko erreminta bat dute. Euskal enpresetako ekoberrikuntzarako driverrak politika publikoak betetzea (% 41) eta bezeroen ingurumen-betekizunak dira (% 39).

Datuek EAEko produktibitate materialaren eta energetikoaren hobekuntza argia islatzen dute, azken urteotan. Adibidez, BPGko unitate bat ekoizteko 2005ean behar ziren materialen ia erdiak behar dira gaur, eta produktibitatearen hobekuntza EBkoa baino dezentez handiagoa da.

Hori guztia merkatuko produktibitate-eskaeren eta lehengaien prezio igoeraren emaitza da, ekoizpenean eraginkortasun-ahalegin garrantzizkoak egitera behartu baitu egoerak. Horrez gainera, bai gizartea eta bai enpresak motibatuagoak daude eta zorrotzagoak dira ingurumen arautegiari dagokionez, eta lortu nahi diren emaitzak eskaintzen ari dira, argi eta garbi.

Era berean, materialak aurrezten dituzten eta energiaren erabilpen eraginkorragoa lortzen duten fabrikazio-teknologiaren berrikuntzari ekodiseinuko metodologiaren gero eta interes eta aplikazio handiagoa erantsi behar zaio. Produktu baten bizi-zikloko ingurumen-inpaktu guztien % 80



produktu horren diseinuak baldintzatzen ditu. Ekodiseinuak ingurumen-irizpideak aplikatzen ditu produktuaren bizi-ziklo osoa kontuan hartuta: diseinua eta kontzeptualizazioa, fabrikazioa, banaketa, erabilera eta produktuaren bizi amaiera. Horrekin guztiarekin baliabide materialak aurrezteak, ingurumen-inpaktuak murriztea eta produktuen funtzio-hobekuntza garrantzizkoak lortzen dira.

Ekodiseinua eta produktuen iraunkortasunean eta bizi-zikloan zehar produktua eta zerbitzua bateratzean oinarritutako merkatuko bereizkuntza-elementuei balioa aitortzen dien negozio eredu berrien aplikazioa ibilbide luzeko bideak dira Euskadiko enpresentzat eta pertsona ekintzaileentzat. Materialen erabilerako produktibitatearekin batera, hondakinak dira, Euskadin, enpresentzako aukerak –enplegua sortzea barne– eskaintzen dituen beste alor bat. Hondakin gutxiagok pertsonen osasunerako eta ekosistemetarako arrisku gutxiago esan nahi du, baina, haiek sortzen dituzten enpresentzat produktibitate handiagoa ere bai, epe ertain eta luzera, aukera-nitxo berriei esker, teknologia, prozesu edo ideia berrien bitartez haiek merkatuan berriro balioztatzeak gai badira.

Epe ertain eta luzera, bi giltzarri daude hondakinen sorrera minimizatzeko eta hondakin segmentu nagusien zirkulua ixteko. Lehenik, enpresen eta herritarren erantzunkidetasuna eta kontzientzia hartzea eta eragile publiko eta pribatu guztien elkarren arteko lan koordinatua, baliabideak alferrik galtzen ez dituen ekonomia zirkular baten baldintzak betetzen direla bermatzeko.

Bigarren, hobekuntza teknologikoa eta berrikuntza, bai zeharkako ekoizpen teknika eraginkorrakoak lortzeko eta bai hondakinen segmentu garrantzizkoen zirkulua itxi eta berriro merkatura eramatea ahalbidetzen duten berrikuntza sakonagoak egiteko, horrek dakartzan abantaila ekonomikoekin eta ingurumenaren arlokoekin.

Euskadi ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor bihurtzeko, IEP 2020ren ekintza estrategikoa jarduera hauetan zentratuko da:

---

## 2.1. Jarduteko lerroa: **Karbono isurketa txikiko ekonomia lehiakorra bultzatzea**

---

### **Jarduera nagusiak:**

17. 2030rako Klima-aldaketarako Euskal Estrategia elaboratzea, hark markatuko baitu hurrengo urteetan jarraitu beharreko ekintza. [2017rako lehentasuna].
18. Energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna indartzea maila guztietan (etxebizitza eta eraikinak, mugikortasuna, industria, zerbitzuak, lehen sektorea, herri-administrazioa eta produktuen kontsumoa) eta energia berriztagarrien sorkuntza bultzatzea. [2017rako lehentasuna].
19. Herritarren eta enpresen klima-aldaketarekiko erantzunkidetasuna indartzea (garraio publikoa eta partekatua potentziatzea, energia-eraginkortasun handiagoko produktuen kontsumoa, produktu eta zerbitzuen ekoetiketak, borondatezko konpromiso-sistemak mesedetzea eta isurketak konpentsatzea). [2017rako lehentasuna].

---

## 2.2. Jarduteko lerroa: **Materialen kontsumoa optimizatzea, produktu eta prozesu eraginkorrago eta lehiakorragoen bitartez lehiakortasuna hobetzeko bide gisa**

---

### **Jarduera nagusiak:**

20. Espezializazio adimentsuaren estrategia garatzen eta ezartzen laguntzea, Euskadin ekoberrikuntza eta ekoeraginkortasuna bultzatzen duten programen bitartez fabrikazio aurreraturantz urratsak egiteko lehentasunaren barruan. [2017rako lehentasuna].
21. Ekodiseinua potentziatzea baliabideen kontsumoa murrizteko eta hondakinen sorkuntza prebenitzeko tresna gisa, aldi berean, produktuen funtzionaltasuna (zerbitzu eskaintza), iraunkortasuna eta birziklagarritasuna handituz. [2017rako lehentasuna].
22. Produktuen eta prozesuen enpresako ekoberrikuntza bultzatzea, ingurumenak merkatu globalean sortzen dituen merkatu-aukerak aprobetxatzeko. [2017rako lehentasuna].
23. Teknologia garbien eta industriako isurpenei buruzko Zuzentzarauak ezarritako eskura dauden teknologia onenen erabilpena bultzatzea. [2017rako lehentasuna].

---

## 2.3. Jarduteko lerroa: **Ekonomia zirkular bat bultzatzea non ez den ezer alferrik galtzen**

---

### **Jarduera nagusiak:**

24. Isurketak eta lehengai naturalen erabilpena zigortzen duten eta, aldiz, berrerabilpena, birziklatzea eta balioztatzea saritzen duten tresna ekonomikoak ezartzea, adibidez, produktu sekundarioen merkatuak artikulatzea erraztuz.
25. Baliabideak bizi-ziklo osoan eraginkortasun handiagok –bereziki, zikloaren amaieran hondakinak aprobetxatzen direla– erabiliko dituen etxegintza eta eraikuntza sustatzea. [2017rako lehentasuna].
26. Ekintzailatza sustatzea zikloen itxiera eta ekosistema industrialak mesedetzen dituzten negozio eredu berrien bitartez. [2017rako lehentasuna].

---

## 2.4. Jarduteko lerroa: **Ekintzailatza eta enplegu berdea indartzea**

---

### **Jarduera nagusiak:**

27. Negozio eredu berrien bitartez ekintzailatza sustatzea, ekintzaileei informazioa eta prestakuntza emanez ingurumenak eskaintzen dituen enpresa-aukerari buruz. [2017rako lehentasuna].
28. Lurraldean enpresak aurkitzeko azpiegiturak optimizatzea. [2017rako lehentasuna].
29. Udalerrietan berrikuntzei eta jardunbide egokiei laguntzeko ekimenak handitzea. [2017rako lehentasuna].
30. Lurraldearen garapen jasangarriaren esparruan lankidetzaren sareak sendotzea. [2017rako lehentasuna].

### 3. HELBURU ESTRATEGIKOA

## GURE HERRITARREN OSASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATZEA ETA BABESTEA

**IV. IEPk planteatzen du, helburu estrategiko gisa, 2020an euskal herritarrek ingurumen osasungarria goza dezatela, ingurumenak baldintzatzen dituen gaixotasunen eragina murriztuz eta, pertsonen ongizatea xede dela, ingurumen arriskuen ezagutzan eta kudeaketan aurrera eginez. Airearen, uraren eta lurzorua kalitate-estandarrek ez dezatela arriskurik izan osasunerako. Gero eta kezka handiagoa sortzen duten ingurumen-bektoreen inpaktuak (kutsadura akustikoa, luminikoa, elektromagnetikoa, substantzia kimikoak,...) hobeto ezagutu eta kudeatu daitezela.**

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) irizten dio ingurumen-estreseko faktoreen eraginez sortuak direla Europako herrialdeetako heriotza guztien % 15etik 20ra bitartean, eta ELGERen arabera, hirietako kutsadura izango da 2050ean, mundu guztian, ingurumenaren arloko hilkortasun-kausa nagusia.

Azken hamarraldian, Euskadik oso aurrerapen handiak egin ditu bere ingurumen-kalitatearen hobekuntzan. Ingurumen-politika eta, harekin batera, azken urteotan aplikatutako industria- eta energia-politikak, neurri handi batean Europako erabakien ondoriozkoak, oso eraginkorrak gertatu dira airearen, uraren eta lurzorua kalitatea hobetzeari dagokionez. Era berean, osasun-politikak ingurumeneko faktoreen<sup>9</sup> osasunerako arriskuen monitorizazio eta prebentzio lan handia egin du eta aurrerapen esanguratsuak egin dira produktu kimikoek, hondakinek, produktu kutsatzaileen isurpenek eta uraren kalitateak osasun publikoan sor ditzaketen arriskuen kontrol lanetan.

Airearen kalitatea, Euskadin, Europako herrialde garatuen mailan dago, gaur egun. Lortutako hobekuntzak, lehenik eta behin, sistema industrial eta energetikoaren eraldaketa sakonaren ondorio dira, izan ere, sistema ekonomiko eraginkorrago bat –beraz, gutxiago kutsatzen duena– artikulatu da energiaren erabilpenari dagokionez (2008an, BPG kantitate bera ekoizteko, 1980an baino % 80 energia gutxiago behar zen), eta energia dibertsifikatu egin da herrialdean gasa zabaldu izanari esker; hala, gasa bilakatu da energia iturri nagusi eta erregai horren gas isurketak askoz apalagoak dira hark ordeztu dituen ikatzak eta petrolioaren deribatuek isurtzen zituztenak baino (% 50 baino gehiago murriztu dira atmosferara egiten diren SO<sub>2</sub> isurketak).

Bigarrenik, ibilgailuen parkea –publikoa eta pribatua– modernizatu denez, motor eraginkorrak eta gutxiago kutsatzen dutenak dabilta orain errepidean. Eraldaketa horrek arindu egin ditu, neurri batean, ibilgailu kopurua eta mugikortasun motorizatua hazi izanaren eraginak, baina ez dago dudarik kutsadura-bektore garrantzizkoa dela oraindik.

Ur-masen egoerak edo potentzial ekologikoak hobekuntza handia izan du Euskadin. Nahiz eta oraindik bide luzea geratzen den ur-masa guztien egoera ekologiko ona lortzea xede duen Uraren Esparru Zuzentzarauan ezarritako gidalerroak betetzeko.

Neurri handi batean, Euskadiko lurzoru kutsatuak iraganeko gure historia industrialaren ondorioak dira: pasibo garrantzitsu bat utzi zigun. 2006ko lurzoru kutsatuen alorreko legeria espezifikoak eta integralak inflexio-puntu argi bat markatu zuen lurzoru ikertu eta berreskuratzeko lanak areagotzeari begira. Lurzoru kutsatuen euskal politikak arriskua behar bezala kudeatzea eta lurzoru horiek osasunerako eta ekosistemetarako izan dezaketen inpaktua minimizatzea lortu du.

Osasunaren erronka etengabe egokitzen ari den desafio bat da, zientziak aurrera egiten duen eta agente kutsatzaileen eta pertsonen osasunaren eta ekosistemen arteko erlazioak hobeto ezagutzen dituen neurrian. Zentzu horretan, esku-hartzea gehiago zentratu behar da pertsonen osasunean izan dezakeen inpaktuan, isurketen ebaluazioan eta ingurunearen kalitatean baino.

<sup>9</sup>Eusko Jaurlaritzaren 2013-2020rako Osasun Plana.

Beharrezkoa da kutsadura jatorritik bertatik moztea eta kontrolatzea, ingurunearen kalitaterako arrisku eta aukeren kudeaketa goiztiar bat egitea eta Europar Batasunetik datozkigun erregulazio goranahiagoak egiteko ahalmena izatea (muga berriak aireko agente kutsatzaileentzat, produktu kimikoak kontrolatzeko eskakizun zorrotzagoak, sailkapen-, etiketa- eta ontziratze-arauak, produktu biozidei eta pestizidei buruzko legeria).

Aurrera egiten ari da, pixkanaka, osasunean inpaktu potentziala izan dezaketen faktoreekiko kezka, esate baterako, kutsadura elektromagnetikoa, luminikoa, barneko airearen kalitatea, itsasoko zaborra, bioproduktuak, biozidak, usain txarrak eta, bereziki, zarata, guztiak ere herritarrengan –baita administrazio publikoetan ere– gero eta kezka handiagoa pizten dutenak.

Horrek guztiak gizartearen erantzun irmo bat eskatzen du, eragile guztiak batuko dituen eta politika guztiak (osasuna, industria, energia, lurralde-antolamendua, garraioa, ingurumena) eta eskumena duten administrazio guztiak integratuko dituen, herritarren osasuna babesteko xedez, bereziki, inpaktu handiena jasateko arriskua duten populazioko segmentuena, hau da, haurtzarora eta zahartzarora.

Herritarrak osasunerako eta ongizaterako ingurumen-arriskuetatik babesteko, jarduera hauetan zentratuko da IEP 2020ren ekintza estrategikoa:

---

### 3.1. Jarduteko lerroa: **Bitartekoen kalitatea hobetzeko bideari eustea**

---

#### **Jarduera nagusiak:**

31. Azaleko (ibaiak, estuarioak, kostaldeko urak, aintzirak eta hezeguneak), lurpeko eta eremu babestuetako (bainatzeko tokiak, hartuneak, nitratoetikiko eremu zaurgarriak) ur-masen egoera ona lortzea. [2017rako lehentasuna].
32. Kalitateko uraren eskariari erantzutea, jasangarritasun, aurrezpen eta eraginkortasun irizpideen arabera, emari ekologikoen erregimenarekin bateragarri eginez eta ur eskaria kudeatzeko tresnak potentziatuz. [2017rako lehentasuna].
33. Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioekin bat datorren airearen kalitatea (kanpokoa eta barnekoa) ziurtatzea. [2017rako lehentasuna].
34. Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduera indartuz. [2017rako lehentasuna].

---

### 3.2. Jarduteko lerroa: **Gero eta kezka handiagoa sortzen duten ingurumen-erronka eta -bektoreei aurre egitea (klima-aldaketa, kutsadura akustikoa, luminikoa, elektromagnetikoa, substantzia berriak...)**

---

#### **Jarduera nagusiak:**

35. Muturreko klima-fenomenoen eraginei galga jartzea (lehorteak, uholdeak, bero boladak...).
36. Osasunerako ingurumen-arriskuen monitorizazioa, prebentzioa eta kudeaketa indartzea, ingurumen-informazioko sistemak hobetuz. [2017rako lehentasuna].
37. Ingurumen-kalitatearen kostu/onura ekonomikoa eta soziala ebaluatzea, osasun-kostuen handitzeak/aurrezpenak kontuan hartuta.

## 4. HELBURU ESTRATEGIKOA

### LURRALDEAREN JASANGARRITASUNA HANDITZEA

**IV. IEPk planteatzen du, helburu estrategiko gisa, 2020an Euskadik ingurumen jasangarritasuna txertatuta izatea biztanleen bizi-kalitatea hobetzera zuzendutako udal politiken ardatz garrantzitsu modura. Tokiko jasangarritasuna bultzatzen duen lurralde arteko oreka. Bere kapital naturala babestuz, negozioarako eta enplegua sortzeko aukerei balioa emanez, hiriko bizitza eraberritzearen alde lan eginez –ehundura urbano eta industrialak berroneratzea sustatzen duen lurralde politika baten bitartez– eta herritarrek osasunerako ingurumen-arriskuetatik babestuz.**

Lurralde jasangarria bizi-kalitatearen sinonimoa da. Gure lurraldearen parte handienak arazo ekologikoen multzo erkide bati egiten dio aurre. Arazo horiei erantzuteko giltzarria da hiriko espazioa antolatzeko eta diseinatzekeo politika jasangarriak aplikatzea; horrelakoek, hainbat alderdi hartu behar dituzte barruan, hala nola baliabide energetiko eta materialen erabilera eraginkorra, karbono isurketa txikiko ekonomia, klima-aldaketara egokitzea, lurzoruaren erabilera jasangarria, hondakinen eta lurzoru kutsatuen kudeaketa, ekosistemen erresilientzia, uraren kudeaketa, giza osasuna, erabakiak hartzeko orduan herritarrek parte-hartzea, bai eta ingurumen arloan heztea eta sentsibilizatzea ere.

Hirietan izaten den pertsonen kontzentrazioa dela eta, hirigunean gertatu ohi da modu zuzen eta agerikoenean ingurumena-osasuna-ongizatea erlazioa. Gure herri eta hirietan arnasten dugun airearen kalitatean eragin itzela du hirigintza ereduak, bereziki, energiaren erabilpenak, mugikortasun ereduak eta kontsumo ereduak. Bestalde, ingurumen-arazo globalen kasuan –klima-aldaketa, adibidez–, tokiko irtenbideak bilatzen dira, irizten zaiolako udalerrien laguntza proaktiborik gabe ia ezinezkoa izango dela desafio handi horietan arrakasta izatea. Helburu globalagoak lortzeko tokian-tokiko jarduerak bultzatzea.

Europako erakundeek eta estatu kideek dute funtsean Europa 2020 estrategia hedatzeko ardura; hala eta guztiz ere, nabarmendu beharra dago tokiko edo eskualdeko administrazioak eskudunak direla Europa 2020rako garrantzitsuak diren arloetan, bai proiektuaren alderdi sozialean, ekonomikoan zein ingurumenekoan.

Gero eta udalerrri gehiago daude European, beren garapen-estrategiaren erdian ingurumen-jasangarritasuna kokatzen dutenak. Hiritartzea hazten ari denez, ingurune naturalaren garrantziari buruzko kontzientzia handitu egin da hiriguneetan. Udalerritik markatzen da jarraibidea hiri-jasangarritasunaren arloan eta, askotan, aitzindariak izaten dira ingurumen-arazoei irtenbide berritzaileak aplikatzerakoan. Tokiko administrazioek funtsezko papera jokatzen dute, aipatutako erronkei aurre egiten lagunduko duten ekintzak gauzatzeko.

Euskadiko udalerrriak errealitate horren oso jakitun izan dira eta, herrialdeko ingurumen-politikak bultzatuta, tokian tokiko ekintza-politikak (Tokiko Agenda 21) jarri dituzte abian jasangarritasunerako bidean haien garapena bultzatzearen. 2002an eratu zenetik ibilbide luzea eginik duela, Udalsarea 21 –Jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea– erakundea da eremu horretan egindako lanaren erakuskari printzipala.

200 udalerrik –sareko protagonista nagusiak– eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika eta Osasun sailek osatzen dute Udalsarea 21. Erakundeen arteko lankidetzak hori da sarearen elementu giltzarria eta motorra, euskal lurraldean garapen jasangarri eraginkorra lortzeko ahalegin guztiak biltzen dituena.

Ildo horretan, IV. IEP 2020k bilatzen duen ingurumen-politikaren eraldaketa lurralde errealitatera hedatu beharra dago, pertsonengana eta haien eguneko bizimodura heldu ahal izateko. Udalerrria da administrazioaren eta herritarren arteko lankidetzak-eremu hurbilekoena.

Biodibertsitatea ez dago parke naturaletan soilik; hiriko bizitzarekin topo egin behar du, hura blaitu azpiegitura berdeen garapen berrietan, ingurune naturalaren balioztapena eta babesa lotzen direla, gizarteak izaditik lortzen dituen onura ugariak ahaztu gabe, eta hura hiri-plangintzan kontzienteki txertatuz.

Horiekin bat egiten dute ingurumenak eskaintzen dituen enpresa-aukera berriak, hiriak biziberritzeko bide berriak irekitzen dituztenak enpresak sortzeko eta ekintzaitzarako iturri berrien bitartez, haiek lotuta dakartzaten kalitateko enplegu-hobiak barne.

Populazio guneek pertsonen benetako kontsumo eredia eraldatzea bilatzen dute, ingurumenean eta gure osasunean izan ditzaketan inplikazioak kontuan hartzen dituzten kontsumo arduratsuko jarraibideetara aldatzeko. Mugitzerakoan hartzen ditugun erabakiek, gure beharrianak asetzeko aukeratzen ditugun produktu eta zerbitzuek eta energiaren erabilpenak baldintzatzen dituzte arnasten dugun airearen kalitatea, gure ur premiak, hondakinen bolumena eta, azken batean, gure lurraldearen ingurumen-kalitatea.

Kontsumo arduratsuekin inplikatzeko diren herritarren kontzientzia eta erantzunkidetasuna, eta energiaren erabilera arrazional eta eraginkorra aldeztearekin batera, mugikortasun jasangarriko eredu eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren alde apustu eginik hiri berde eta ekologikoki arduratsu baterantz doan ingurune bat artikulatzea dira, azkenean, lurraldearen jasangarritasunerako berme bakarrak.

Lurraldearen jasangarritasuna mesedetzeko, jarduera hauetan zentratuko da IEP 2020ren ekintza estrategikoa:

---

#### 4.1. Jarduteko lerroa: **Pertsonen kontsumo arduratsua bultzatzea**

---

##### **Jarduera nagusiak:**

- 38. Kontsumitzailea informatzeko sistemak garatzea. [2017rako lehentasuna].
- 39. Produktuen ekoetiketak bultzatzea.
- 40. Kontsumo-jokabide arduratsuak mesedetzea.
- 41. Tokiko kontsumoa, zirkuitu laburrak eta elikadurako zikloa ixtea bultzatzea. [2017rako lehentasuna].

---

#### 4.2. Jarduteko lerroa: **Azpiegitura berdeak garatzea eta ezartzea klima-aldaketa arintzeko, berorretara egokitzeko eta onura ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak gehitzeko izadia lurraldean integratzen duten soluzioen bitarte**

---

##### **Jarduera nagusiak:**

- 42. Azpiegitura berdeak globalki planifikatzea, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideekin eta lurraldeko eta sektoreko planekin bat etorririk. [2017rako lehentasuna].
- 43. Udalerri arteko koordinazioa mesedetzea azpiegitura berde partekatuak eraikitzeko.
- 44. Kapital naturalari eta haren erabilera eraginkorrari buruzko informazioa ematea udalerriei. [2017rako lehentasuna].

---

#### 4.3. Jarduteko lerroa: **Pertsonen eta salerosgaien mugikortasun jasangarrirako hiri-ereduak mesedetzea**

---

##### **Jarduera nagusiak:**

45. Motorizatu gabeko mugikortasuna mesedetzea, oinez eta bizikletaz eginiko joan-etorriak bultzatuz. [2017rako lehentasuna].
46. Garraio publikoa eta partekatua sustatzea, pertsonen eta salerosgaien mugikortasuna optimizatzeko IKTak baliatzen dituen garraio multimodal adimentsua bultzatuz eta energia garbiko lekualdatze moduak mesedetuz. [2017rako lehentasuna].
47. Garraioen eskaera kudeatzeko sistemen ezarketan aurrera egitea. [2017rako lehentasuna].

---

#### 4.4. Jarduteko lerroa: **Energiaren, uraren, hondakinen eta lurzoruen erabilpen arduratsua potentziaztea lurraldean**

---

##### **Jarduera nagusiak:**

48. Hiri-ehunak biziberritzen laguntzea, enpresa eredu jasangarriago batera, eraikin parke eraginkorrago batera, eta herritarren harremanetarako kalitateko espazio publiko batera egin beharreko trantsizioa mesedetuz. [2017rako lehentasuna].
49. Aurrezte eta eraginkortasun jokabideak mesedetzea etxean eta hiri-enpresetan. [2017rako lehentasuna].

---

#### 4.5. Jarduteko lerroa: **Herritarren sentsibilizazioa eta parte-hartzea bultzatzea lurraldean**

---

##### **Jarduera nagusiak:**

50. Prestakuntza sustatzea eta sentsibilizazio eta informazio kanpainak egitea hiriko karbono-aztarna murrizteko.
51. Eskolako Agenda 21en eta Tokiko Agenda 21en arteko koordinazioa handitzea. [2017rako lehentasuna].
52. Toki-administrazioaren eredugarritasuna bultzatzea jasangarritasunean. [2017rako lehentasuna].
53. Herritarren parte-hartze prozesuak indartzea udalerrri mailan. [2017rako lehentasuna].



## 5. HELBURU ESTRATEGIKOA

### **POLITIKEN KOHERENTZIA BERMATZEA INGURUMEN- INTEGRAZIOA AREAGOTUZ**

**IV. IEPk planteatzen du, helburu estrategiko gisa, 2020an finkatuta egon dadila ingurumen-integrazioa. Ingurumenari buruzko politika publikoak koherenteak izan daitezela eta ingurumen-hobekuntzak lortzera zuzendutako neurriak onuragarriak izan daitezela beste politika batzuetarako. Esparru horretan, administrazioek koordinaturik lan egiten dute, beharrezko informazioa partekatzen dute eta ahal duten sintonia handiena bilatzen dute beren politikak eraginkortasunez ezartzeko. Gainera, 2020an, herritarrak eta enpresak ekintza positiboaren benetako protagonista bihurtu dira gure ingurumenaren egoera hobetzeko.**

Ingurumen Esparru Programa honen helburu guztiak lortzeko, beharrezkoa da ingurumen-irizpideak gainerako politiketan eraginkortasunez txertatzea. Planteamendu politiko baterakoak eta koordinatuak egiteak politika horien onurak esponenzialki handitzea ahalbidetzen du. Ingurumenari buruzko politika publikoen koherentzia hori hazkunde jasangarrirako sektore giltzarri gisa aitortzen da.

Ingurumenaren egoera jarduera pribatu asko eta hainbat eremutako politika publikoak bildu izanaren emaitza da. Aipatzekoak dira, politika horien artean, ingurune naturalaren alorra, eta ekonomia-, gizarte-, lurralde- eta kultur-garapenaren ereduak.

IV. IEPk, Jaurlearitzaren Plan Estrategikoa denez, oinarriak ezartzen ditu ingurumenari buruzko politika guztien koherentzia sendotzeko, inplikaturako parte guztiak erantzukizunez eta helburu erkideak lortzeko lanean ari direla bermatuz. Koherentziaren bidea inplikaturako parte guztien arteko elkarrikitza eraikitzailea indartzen duten bideak sortuz korritzen da, herrialdeak ingurumenaren alde egindako apustua bistakoa izan dadin, ez bakarrik IEPn eta ingurumen-politiketan, baita aurrera eramaten diren gainerako politika publiko guztietan ere, eragin erabakigarria baitute horiek ingurumenaren egoeran eta, hortaz, pertsonen osasunean eta ongizatean.

Toki-administrazioek, beren aldetik, paper protagonista jokatzeko Euskadiko ingurumen-politikaren emaitzan. Administrazioen arteko koordinazioa bultzatzea eta ingurumena haien politiketan integratzea funtsezko faktoreak jotzen dira ingurumen-politika guztien koherentzia eraginkorra lortzeko.

Ingurumen-politiken koherentzia herri-administrazioek herritarrekin eta enpresekin duten konpromisora ere hedatzen da. Enpresei erantzunkidetasun-ahalegin bat eskatzen zaie, zeina ongi hartua izango den herri-administrazioaren jardura koordinatuaren bidez erantzuten zaiela hautematen badute.

Hala ere, aurrerapen gutxi lor daiteke ingurumen-politiketan, gizarteari benetako protagonismoa emango dion gobernantza eredu baten laguntza gabe. Erantzunkidetasun publiko-pribatua eta herritarrena bultzatzea da ingurumenaren kudeaketa parte-hartzaileagoa eta hobeto koordinatua egiteko bidea. Ez da ahaztu behar, enpresak, gizarte zibileko erakundeak eta pertsonak direla, azken batean, beren jokabideekin ingurumenaren egoeran zuzeneko eragina dutenak.

Garrantzi berezia hartzen du, ildo horretan, garapen jasangarrirako hezkuntzak, zeina funtsezko prozesua bihurtzen baita, non pertsonak eta komunitateek euren ingurumeari buruzko kontzientzia hartzen duten eta uneko eta etorkizuneko ingurumen-arazoak konpontzen jardutea ahalbidetzen dieten ezagutzak, balioak, trebetasunak, esperientzia eta irimotasuna bereganatzen dituzten. Unibertsitateak funtsezko rola jokatu behar du etorkizuneko profesionalek jasangarritasunaren dimentsioa beren lanbidera gehi dezaten.

IV. IEPk ingurumen-politikaren arreta-gunea aldatzen du eta gehiago begiratzen die herritarrei eta enpresei subjektu aktibo eta ingurumenaren erantzule gisa, aitzindari eraldatzaile gisa jokatu behar duten papera indartzearen. Herritarrak eta enpresak beren jokabideen erantzunkide dira eta beroriek markatuko dute diferentzia ingurumenaren etorkizunean. Adibide aipagarriak ditugu, herritarren artean, materialak birziklatzeari dagokionez; baita materialen kontsumoan enpresek erakusten duten erantzukizunean ere; argi dago potentzial ikaragarria dutela ingurumenaren alde jarduteko.



Ildo horretan, ingurumenaren alde motibatutako sektore pribatua eta herritarrak dira, azkenean, arduradun politikoei ekimen integralak eska diezaieketenak, ingurumenak gero eta lehentasun handiagoa izan dezan garapen eremuan. Horretarako beharrezkoa izango da gizarte zibilaren barruan eta herri-administrazioekin parte-hartze eta elkarrizketa espazioak potentziatzea. Prozesu horiek oso dinamikoak, malguak eta gardenak izan behar dute politika publikoen eraginkortasuna eta efizientzia indartzeko. Informazioaren eta komunikazioen teknologia berriek eskaintzen duten potentzial guztia eta gizarte-sareen garapena eta aurrerapena ahalik eta gehien baliatzeko momentua da.

Ingurumena, bere hedapen osoan, eta jarduera sozioekonomikoarekin eta pertsonen osasunarekin dituen erlazioak errealitate guztiz konplexuak dira. Errealitate horien azterketa ikerketa prozesu zorrotzen pean dago eta berorietan egiten diren aurrerapenek aplikazio esparru koherentea, zorrotza eta teknikoki justifikatua errazten diete ingurumen-politiken arduradunei. Euskadik zientzia, teknologia eta berrikuntza sistema aurreratua du, ingurumenaren eremuan gaitasun handiak dituena, eta beharrezkoa da sistema hori bultzatzea eta bere potentzial guztia baliatzea.

Ingurumenaren integrazioa eta arlo horretako politiken koherentzia mesedetzeko, jarduera hauetan zentratuko da IEP 2020ren ekintza estrategikoa:

## 5.1. Jarduteko lerroa: **Politika publikoetan ingurumenaren integrazioa sustatzea**

### **Jarduera nagusiak:**

54. **Proiektu Giltzarriak<sup>10</sup> bultzatzea ingurumenaren aldagaia sailen artean integratzeko tresna gisa.** [2017rako lehentasuna]. Aldi honetan 6 proiektu hasiko dira:
  1. Administrazio eredugarria ingurumenaren aldetik.
  2. Lurralde osasungarria.
  3. Ingurumen-fiskalitatea.
  4. Fabrikazio berdea.
  5. Elikadura zirkularra.
  6. Azpiegitura berdeak.
55. **Politika publiko guztien eta, bereziki, aurrekontu publikoen azpian datzan ingurumen-kontakizuna agerira ateratzea.**
56. **Tresna berri xume eta berritzaileen erabilpena gehitzea, beroriei esker sareko lankidetzak mesedetuko baita IEP bultzatzeko erantzukizuna duten pertsona arduradunen artean.**
57. **Ingurumen-politikaren segimendua egiteko koordinazio teknikorako mekanismoak sortzea Foru Aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailen artean.** [2017rako lehentasuna].
58. **Faktore sozioekonomikoen eta ingurumen arlokoen arteko interakzioa gehitzen jarraitzea politiken ex-ante eta ex-post ebaluazioetan.**

<sup>10</sup> Ikus I. eranskina. Proiektu Giltzarrien xehetasunak.

---

## 5.2. Jarduteko lerroa: **Ingurumen arloan eredugarria den herri-administrazio baten konfigurazioan aurrera egitea**

---

### **Jarduera nagusiak:**

59. Ekintza publikoaren ingurumen-aztarna kuantifikatzen eta minimizatzen aurrera egitea maila guztietan. [2017rako lehentasuna].
60. Erosketa publiko berdea sustatzea ingurumen-irizpideak gehi ditzaketen kapituluetan, bereziki, azpiegituren plangintzan eta garapenean, etxegintzan eta ekipamenduetan, ibilgailu eta mugikortasunean eta energiaren eta hornigaiaren erabileran. [2017rako lehentasuna].
61. Ingurumen-kudeaketako izapideak eta prozedurak murriztu, erraztu eta azkartzea. [2017rako lehentasuna].

---

## 5.3. Jarduteko lerroa: **Gizarte zibilaren parte-hartze eta elkarrizketa espazioak eta erantzunkidetasun publiko-pribatua sustatzea**

---

### **Jarduera nagusiak:**

62. IKTak eta gizarte-sareak baliatzen dituzten parte hartzeko sistema dinamikoak eta malguak gehitzea erabakiak hartzeko orduan informazio garrantzitsuen fluxu eraginkorra egon dadin.
63. Ingurumenari eta hark herritarren ongizatean duen eraginari buruzko ezagupenen oinarria hobetzea. [2017rako lehentasuna].
64. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen ingurumen arloko ikerketa ahaleginak koordinatu, partekatu eta sustatzea eta lortutako aurrerapenak ingurumen-politika publikoetara transferitzea. Horri buruz, arreta berezia jarri behar da biodibertsitatearen balorazioan, ingurumen-baldintzek osasunean duten inpaktueta eta ingurumenaren arloan gero eta kezka handiagoa pizten duten eremu berrien ebaluazioan eta kudeaketan (kutsadura akustikoa, luminikoa, elektromagnetikoa, substantzia berriak...). [2017rako lehentasuna].
65. Datuak biltzea, kudeatzea eta bateratzea sinplifikatu, arrazionalizatu eta modernizatuko duen ingurumen informazio sistema partekatu bat bultzatzea, gai berriak gehitzeko bide ematen duela. [2017rako lehentasuna].

---

## 5.4. Jarduteko lerroa: **Jasangarritasunerako hezkuntza eta kontzientziario indartzea euskal gizarte osoan**

---

### **Jarduera nagusiak:**

66. Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntza Estrategia elaboratzea.
67. Agenda 21-i bultzada ematea Lanbide Heziketako zentroetan eta Eskolako Agenda 21ekin koordinatzea. [2017rako lehentasuna].
68. Euskal gizartearen ingurumen-heziketaren mailari buruzko diagnostiko baten formulazioan aurrera egitea eta, bereziki, unibertsitateko irakaskuntza guztietan jasangarritasunaren ikuspegia gehitzea [2017rako lehentasuna].
69. IKTak eta sareko lana ahalik eta gehien baliatzea ingurumen-trebakuntzako sistema berritzaileak bultzatzeko.
70. Ingurumen-trebakuntzan aurrera egitea antzeko interesak eta beharriak dituzten pertsona eta taldeen segmentuen arabera, pertsonen bizi osoan zeharreko trebakuntza aintzat harturik.
71. Prestakuntza-ahalmenak garatzea ingurumen gaietan.

## 6. HELBURU ESTRATEGIKOA

# EUSKADIREN NAZIOARTEKO PROIEKZIOA ETA ERANTZUKIZUNA SUSTATZEA

**IV. IEPk planteatzen du, helburu estrategiko gisa, 2020an ingurumena sendotuta egotea Euskadiren nazioarteko proiektzioarako elementu giltzarri gisa, ingurumen-politikak aplikatzerakoan bikaintasun maila onak lortzeko eta mundu osoko maila goreneko ingurumen-foro eta -sareetan parte-hartze aktiboa izateari esker.**

Gizadiaren ingurumen-desafio nagusiak globalak dira eta herrialde eta eskualdeen ekarpen indibidualak batu beharra dago haiei kontra egiteko. Kasu paradigmatikoa da berotegi-efektuko gasak isurtzearen ondoriozko klima-aldaketa, baina badira gehiago ere garrantzi handikoak: biodibertsitatearen babesa, ingurumen-kutsadura edota lurzorua degradazioa.

Euskadi herrialde txiki bat da baina bere erantzukizunari aurre egin eta bat egin nahi du Europak ingurumenarekin duen konpromisoarekin, eta gizadiaren ingurumen-desafio handien kudeaketari aktiboki eta konprometiturik erantzuten dioten herrialdeen artean kokatu eta munduak hala aitor dezan bilatzen du. Lehenik eta behin, Europatik datozen gomendioekin koherenteak diren ingurumen-politikak aplikatuz, horretan ari baita, etengabe, Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategia onartu zenetik, bata bestearen atzetik etorri diren Ingurumen Esparru Programen bitartez. Hala, IV. IEP honek «*Ondo bizi, gure planetaren mugak errespetatuz*» izenburuko 2020ra arteko Europar Batasunaren Ingurumen Arloko VII. Ekintza Programa Orokorraren gidalerroak aplikatzen ditu. Bigarrenik, gainerako eskualde eta herrialdeekin batera lankidetzat estua gauzatuz, munduaren garapen jasangarriaren aurrera egiteko, Garapen Jasangarriaren aldeko Eskualde Gobernuen Sarean (nrg4SD), Europako Eskualdeen Ingurumen Konferentzian (ENCORE), Jasangarritasunerako Tokiko Gobernuen Sarean (ICLEI) eta beste zenbait erakundetan parte hartzearen bitartez.

«Euskadi nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadi Basque Country» delakoan adierazten den bezala, Euskadiren etorkizuna munduko eszenatokian jokatzeko da eta, neurri handi batean, euskal gizartearen etorkizuneko ongizatea gure erakunde, pertsona, enpresa eta agente sozioekonomikoek desafio horri aurre egiteko duten ahalmenaren mende egongo da. IV. IEPk bat egiten du desafio horrekin, jakinaren gainean egonik gure ingurumena eta berori ulertzeko eta gozatzeko dugun era partikularra lagungarri direla herrialde gisa mundu osoari transmititu nahi diogun irudi positiborako. Munduari irudi positibo hori transmititu eta helarazteko modu bakarra ingurumenaren aldeko konpromisoa pertsonengan sendo errotuta egotea da. Pertsona horiek ingurumena ulertu eta beren balio-eskeman jasota eduki behar dute, eta gizarteak bitarteko eraginkorrez hornitu behar ditu ingurumenarekin era sistemikoan eta arduratsuan erlaziona daitezen. Euskadiren nazioarteko proiektioari eta erantzukizunari laguntzeko, jarduera hauetan zentratuko da IEP 2020ren ekintza estrategikoa:

### 6.1. Jarduteko lerroa: **Ingurumenetik Euskadi nazioartekotzeko estrategiari laguntzea**

#### **Jarduera nagusiak:**

72. Euskadi nazioartean proiektatzeko politikan ingurumena integratzea eta nazioartekotzeko bultzada handiena ematen dioten sailekin eta erakundeekin lankidetzan aritzea. [2017rako lehentasuna].
73. Nazioarte mailan eragile publiko eta pribatuek egindako lana sostengatzea eta zabaltzea. [2017rako lehentasuna].
74. Ingurumenari buruzko foro globaletan parte hartzeko erraztasunak ematea, Euskadi munduan ezagutzera emateko, euskal herritarren eta enpresen interesak aldeztzeko eta mundu zuzenago eta orekatuago bat eraikitzen laguntzeko (ICLEI, Jasangarritasunerako Tokiko Gobernuen Sarea edo Garapen Jasangarriaren aldeko Eskualde Gobernuen Sarea bezalako sareen bitartez). [2017rako lehentasuna].
75. Gure gazteriak parte har dezan sustatzea jasangarritasunean hezteko eta hura bultzatzeko programetan. [2017rako lehentasuna].



---

**IEP 2020  
KUDEATZEKO  
ETA SEGIMENDUA  
EGITEKO EREDUA**

---

## 4.1. GOBERNANTZA

Euskadiko ingurumen-politikaren kudeaketa eta gobernantza eredu Euskadiko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean ezartzen den agindutik eratortzen da. Esandako legean Euskadin ingurumenarekin lotura duten erakunde publiko eta pribatu nagusiei sarrera ematen dien gobernantza sistema zeharkakoa eta parte-hartzailea ezartzen da.

Lehendakaritzak koordinatzen du IV. IEP 2020 honen bilakaera globala eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eginkizuna da, bere Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren bitartez, Ingurumen Esparru Programan jasotako ingurumen-politikaren ebaluazioa eta segimendua sustatzea.

IEP 2020k aterki eta erreferentzia rola jokatzeko du ingurumenean eragina duten gainerako politika eta plan sektorialetarako. IEPren idazkaritza tekniko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren eginkizuna izango da, Ihoze sozietate publikoaren sostenguarekin. Zuzendaritza horren ardura izango da Lehendakaritza eta Ingurumen eta Lurralde Politika Saila sostengatzea IEP 2020 honetan diseinatutako ingurumen-politikaren analisi, diagnostiko, plangintza eta ebaluazioko zeregin tekniko guztietan.

**Proiektu giltzarriek**, IEP 2020ko elementu bakanak direnez, beren kudeaketa- eta segimendu-sistema propioa izango dute. Lehendakaritzak koordinatutako ditu guztiak eta erreferentziako talde tekniko bat izango dute, zeina proiektu bakoitzaren arduradun diren Jaurlaritzako Sailetako ordezkariak eratuko baitute. Talde tekniko horien lana izango da, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren laguntza teknikoarekin, hautatutako proiektuak garatzea eta ezartzea.

## 4.2. INGURUMEN ESPARRU PROGRAMAREN BALIABIDE EKONOMIKOAK

IV. Ingurumen Esparru Programak 6 urteko denbora-muga planteatzen du, 2020 artekoa, eta 2015-2017 arteko lehen egikaritze aldia; une horretan egingo da begietsitako jardueren aurrerapen mailaren eta aurreikusitako helburuen indarraldiaren ebaluazio integrala, baita sail arteko eta erakunde arteko lantaldeen ezarketaren eta beroriei lotutako proiektu giltzarrien garapenaren ebaluazioa ere. Orain aurreikusten denaren arabera, une horretan birdefinituko dira bigarren egikaritze aldirako geratu diren jarduerak.

Aurreikusitako denbora-muga eta testuinguru ekonomikoa direla eta, non krisi ekonomiko iraunkorrak BPGren<sup>11</sup> galera eta enplegua murriztea ekarri baitu, sarrera publiko txikiagoekin beharrezan bolumen gero eta handiagoari aurre egin behar izan zaio eta, jakina, ziurgabetasun maila, bai Programako aurrekontu-beharrizanei eta bai baliabide ekonomikoen eskuragarritasunari buruz, nahiko handia da; eta hazi egingo da Programaren indarraldiko azken urteetan.

Testuinguru horretan, Gobernu Ekintzaren Plan Estrategikoa denez, IV. IEP 2020 Jaurlaritzaren ekonomia-aurrekontu perspektiban lerrokatu behar da eta, ildo horretan, bere helburuak sostengatu eta

---

<sup>11</sup> Euskadik bere BPGren % 5 inguru galdu du 2008 eta 2012 artean. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saila.

jarduera-ahalmenen barruan kokatu behar ditu ekin beharreko neurriak. Bestalde, eszenatoki makro-ekonomikoak elaboratzeko zailtasunak areagotu egiten dira ziklo aldaketako eta oraingoa bezalako ziurgabetasun handiko momentuetan.

Erreferentziako esparrua, beraz, batetik, 2015eko aurrekontuen proiektuan jasotako aurrekontu egoera<sup>12</sup> izan behar du eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren helburu orokorretan eta Ingurumen Sailburuordetzaren espezifikoa galdatutako ingurumen-kalitatea. Horretarako, ezinbestekoa da sinergia potentzialak ahalik eta gehien aprobetxatzea ahalbidetuko duten aurrerapen teknologikoak eta prozedura arlokoak eraginkortasunez baliatzea.

Ingurumen Esparru Programa berriak hainbat desafio ditu aurrez aurre, baina bi gailentzen dira beste guztien artetik. Alde batetik, behin betiko eta egiaz, prebentzioko ingurumen-politika bat ezarri beharra, eremu honetako gobernuaren praktika tradizioz markatu izan duen erreakziozko politikaren orde. Bestetik, baliabideen erabileran eta sinergiaren aprobetxamenduan alait eraginkortasun handiena bilatzeko Eusko Jaurlaritzaren beharkizunarekin bat etorri, azken 30 urteotan ingurumenaren arloan egin den inbertsioaren errentagarritasun ekonomikoa bultzatzea, ingurumen aldagaia, aurrerantzean, lehiakortasun faktoretzat hartua izan dadin. Aurreko guztiagatik, aurrekontu premien definizioak IEP 2020 honetako helburu orokorretan jasorik dauden desafio hauei erantzun behar die.

Halaber, Esparru Programako lana Eusko Jaurlaritzaren eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren helburu orokorrekin lerrotatu behar da. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren 2015erako aurrekontuen proiektuko gidalerro ekonomikoak erreferentzia gisa harturik, Ingurumen Sailburuordetzak kudeatutako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren aurrekontu osoaren ehuneko totalaren % 8,5 da<sup>13</sup>, gutxi gorabehera, nahiz eta Sail osoarena Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren % 6,3 izan.

Kontuan harturik Esparru Programa dela Ingurumen Sailburuordetzak ingurumen-politika planifikatzeko duen tresna, hau da, sektoreetako gainerako plan eta estrategia operatiboetako estaldura ematen diona, Sailburuordetza honen aurrekontua IEP inplementatzeko behar diren aurrekontu-betebeharrekin pareka daiteke; are gehiago programa horretan aurreikusitako jarduerak operatiboak<sup>14</sup> ez direnean, izan ere, gainerako ingurumen-politika sektorialetatik jarraitu eta operatiboki inplementatu beharreko ikuspegi integraleko ibilbide-orria marraztera mugatzen baita.

2015eko aurrekontuen proiektuan oinarriturik, non aurrekontu-izendapen operatiboa 53,5 milioi euro baino zertxobait gehiagokoa baita, ondorengo aurrekontu-baliabide hauek beharko dira planteatutako helburuak erdiesteko.

---

<sup>12</sup> Eusko Jaurlaritzak 2015erako egindako aurreikuspenek diote euskal ekonomia % 1,7 inguru haziko dela; horrekin batera, enplegu-tasa ere % 0,7 haziko omen da, baina horrek ez du esan nahi, inondik ere, aurrekontu hedakorrekin lan egingo denik, 2015eko aurrekontuen proiektuan jasota dagoen bezala.

<sup>13</sup> Ehuneko horretan kanpo uzten dira bai pertsonalaren gastuak eta bai egikaritzeko proiektu jakin batekin loturarik ez duten guztiak, alegia, egiturakoak soil-soilik diren gastuak.

<sup>14</sup> Proiektu giltzarriak salbuetsita.

IEP-REN HELBURU ESTRATEGIKOAK	AURREKONTU PREMIAK	EHUNEKOA	LANGILERIA ETA EGITURA GASTUAK
<b>1 HE.</b> Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratztea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak gerizatzeko.	4.445.166 €	% 8,3	738.440 €
<b>2 HE.</b> Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurora egitea.	2.186.660 €	% 4,08	363.252 €
<b>3 HE.</b> Gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea.	37.390.399 €	% 69,79	6.211.369 €
<b>4 HE.</b> Lurraldearen jasangarritasuna handitzea.	6.893.364 €	% 12,86	1.145.140 €
<b>5 HE.</b> Politiken koherentzia bermatzea ingurumenaren integrazioa areagotuz.			
<b>6 HE.</b> Euskadiren nazioarteko proiektzioa eta erantzukizuna sustatzea.	2.657.145 €	% 4,96	441.410 €

Azpiratu behar da, hala ere, aurrekontu hau ingurumen-politikako jardura sektorialen aurrekontu-betebeharren eransketa dela, eta ez dituela Ingurumen Esparru Programak zuzenean egikaritzen; programaren zeregina, izan ere, aipatutako sektoreetako plan, estrategia eta jarduerak beren artean eta Eusko Jaurlaritzaren gainerako jarduerekin koherente izan daitezen ahalegintzea baita. Ez dira, hortaz, aurrekontu-baliabide espezifikoak IEP 2020 inplementatzeko. Esparru Programak zuzenean egikaritzen dituen gastuak dira, aldiz, sostengu-txostenak eta jarraipeneko ebaluazioak egiteko behar direnak, eta xede horretarako 140.000 €ko aurrekontu-zuzkidura kalkulatu da urteko, 5. helburu estrategikoari lotutako aurrekontuan (Politiken koherentzia bermatzea ingurumenaren integrazioa eta erantzukidetasun publiko-pribatua areagotuz).

Ingurumen Sailburuordetzak begietsitako aurrekontu-baliabideez gainera, kontuan eduki behar da Esparru Programa honen arrakastarako elementu giltzarri bat Eusko Jaurlaritzako hainbat Sailen inplikazioa dela, bai-eta, proiektu giltzarriak garatzearen bitartez, beste erakunde batzuen ere, zeintzuk haren garapenari lotutako beste Sail horien aurrekontu gehigarria beharko baitute. Ekimen horiei dagokienez, 2015eko ekitaldian zehar beroriek egikaritzearen ardura izango duten taldeen eraketan lan egitea aurreikusten da, haiek edukiz bete eta 2017rako proposatutako helmugak iristeko ekintza plana marraztu dadin eta, kasua hala bada, lanari orientazio berri bat eman diezaioten, Ingurumen Esparru Programaren data horretako tarteko ebaluazioa egin ostean. Horregatik, ez da aurreikusten beste Sail batzuetatik ekarri beharreko aurrekontu-betebeharrek esanguratsuak izango direnik aurrekontu-aldi honetan zehar.

2015etik aurrerako aurrekontuak elaboratzeko aurrez aipatutako ziurgabetasunak kontuan hartuta, eta ekonomiaren eta enpleguaren susperraldia finkatuko den aurreikuspenarekin, espero liteke, 2016tik aurrera, urteko batez besteko gastu publikoa % 2 inguru haztea, betiere, Esparru Programaren ebaluazioen ondorioz, helburuen aldaketa handiren bat gertatzen ez bada. Aurreikuspen horiekin, ondoko gastu maila hauek ateratzen dira:

IEP-REN HELBURU ESTRATEGIKOAK	2015	2016	2017	2018	2019	2020
<b>1 HE.</b> Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratztea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak gerizatzeke.	4.445	4.534	4.625	4.717	4.812	4.908
<b>2 HE.</b> Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurora egitea.	2.187	2.230	2.275	2.321	2.367	2.414
<b>3 HE.</b> Gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea <sup>15</sup> .	37.390	38.138	38.901	39.679	40.472	41.282
<b>4 HE.</b> Lurraldearen jasangarritasuna handitzea.	6.893	7.031	7.172	7.315	7.462	7.611
<b>5 HE.</b> Politiken koherentzia bermatzea ingurumenaren integrazioa areagotuz.	2.657	2.710	2.764	2.820	2.876	2.934
<b>6 HE.</b> Euskadiren nazioarteko proiektzioa eta erantzukizuna sustatzea.						
<b>GUZTIRA</b>	<b>53.573</b>	<b>54.644</b>	<b>55.737</b>	<b>56.852</b>	<b>57.989</b>	<b>59.149</b>

Baldintzatzaile horiekin guztiekin, Programa behar bezala betearazteko kalkulaturako aurrekontu eragilea 337.943,3 mila €<sup>16</sup> dira, indarraldiaren sei urteen artean banatuta. Aurrekontu-aurreikuspenak alde batera utzita, Esparru Programaren ekitaldi bakoitzeko jarduera maila Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak onartzeko orduan finkatzen dituen zenbateko, muga eta aginduen mende egongo da, bai-eta jarduera horien inplementazioa gauzatzeko erabili nahi diren tresnen izapidetze formalaren mende ere.

<sup>15</sup> 3. helburu estrategikoari egotzitako aurrekontu ehunekoia nabarmentzen da beste guztien gaineratik, izan ere, hor baitago sartuta Uraren Euskal Agentziari dagokiona, tradizioz aurrekontu zuzkidura oso handiak behar izan dituen ingurumeneko gainerako proiektu eta jarduerekin alderatuta, eta aurreko Ingurumen Esparru Programan aurreikusi gabe zegoena, programa hartan ez baitzen uraren arloko jarduerarik jasotzen.

<sup>16</sup> Aurrekontu operatiboaz gainera, pertsonalaren eta egitura gastuetarako urtean 8.899.611 €ko kostua estimatu da.



### 4.3. IEP 2020 PROGRAMAREN SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA

Ingurumen-politikak, Euskadin, erreminta asko ditu gure lurraldeko ingurumenaren kalitatean egindako aurrerapenak neurtzeko. Garrantzitsuenetako batzuk –hala nola ingurumen-profila, ekobarometro sozialak eta industrialak, ingurumenaren egoera, ingurumen-estatistika, etab.– erreminta baliotsuak izango dira gero ere, gure abiapuntua ezagutzeari eta hobetzeari begira.

Hala ere, 2020rako Ingurumen Esparru Programa berria onartzearekin, jasotako 75 jardueren jarraipena eta ebaluazioa abian jarriko da, eta horietako bat, hain zuzen ere, 6 Proiektu Giltzarrietako lantaldeen eraketa da.

Sinpletasuna eta eraginkortasuna bilatzearen, bi izango dira Programaren ebaluazio eta jarraipeneko mekanismoak:

- **Bi urtean behingo jarraipen-txostenak:** IEP 2020an aurreikusitako jardueren eta proiektu giltzarrien aurrerapen maila jasoko dute. Txosten horiek euskarritzat erabiliko dira Programaren tarteko eta azkeneko ebaluazioak egiteko. Jarduera bakoitzak bere xehetasun-fitxa izango du, jardueraren egikaritzea eta etengabeko jarraipena mesedetzearen. Fitxa horiek berorien egikaritzan inplikaturako sailletako kudeaketa-planetan aurrekontu izendatua duten proiektu zehatzetan gauzatuko dira.
- **2020rako Ingurumen Esparru Programaren ebaluazio-txostenak:** txosten hauek 2017 eta 2020 urteetan egingo dira, eta azkeneko hori hurrengo IEP elaboratu aurreko urratsa izango denez, kanpoko erakunde independente batek egingo du, gardentasun, parte-hartze eta lankidetzaren irizpideak aintzat harturik. Txostenak IEP 2020 programan jasotako jarduera eta ekimenen inpaktua ebaluatuko du, bai eta aginte-koadroko adierazleen bilakaera ere. Horrez gainera, beharizanaren arabera, berariazko txosten eta azterketa sektorialak egingo dira, aurrekoak osatzeko.

Ingurumen Esparru Programa berriaren segimenduan eta ebaluazioan sortzen den informazio guztia eskuragarri egongo da, kontsultatzeko eta parte hartzeko, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren webgunearen bidez: [www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus)

Ondoren aurkezten da IEP 2020ren eta bertako emaitzen betetze-maila neurtzeko sistema objektiboa (Aginte-koadro Integrala):

AGINTE-KOADRO INTEGRALA	2017RAKO HELBURUA	2020RAKO HELBURUA
IEP 2020n aurreikusitako jardueren egikaritze maila	>% 50	% 100
Proiektu giltzarrien egikaritze maila	>% 70	% 100
Ebaluazio-txostenak egitea	2017ko tarteko ebaluazioa	2020ko azken ebaluazioa
Jarraipen-txostenak egitea (bi urtean behin)	2016, 2018 eta 2020	

---

# ERANSKINAK

---

## I. ERANSKINA. PROIEKTU GILTZARRIEN XEHETASUNAK

Eusko Jaurlaritzak urrats bat gehiago egin du eta 75 ekintzen artean, 6 Proiektu Giltzarri proposatu ditu, ingurumen-politika aldatzeko motor izan daitezen; aldaketa horretan ingurumen osasungarri baten aldeko apustua egiten da, pertsonen bizi-kalitatearen eta gizarte oparo, moderno, aurreratu eta jasangarri baten euskarri izan dadin. 5. Helburu Estrategikoaren –koherentzia eta politiken integrazioa– muina dira. Etorkizuneko ingurumen-erronkei Eusko Jaurlaritzaren lankidetzak-ikuspegi bateratutik ekiten zaie, Lehendakariaren koordinazioa dute eta hainbat Sailen aitzindaritza partekatua. Proiektu giltzarrien funtsezko helburua IV. IEPn planteatutako helburu estrategiko bat edo gehiago sendotzea eta/edo berorietatik tira egitea da. Betiere ingurumen arloko gobernantza bikain baten ikuspegitik, non erantzunkidetasun publiko-pribatua izango den nagusi.

Denbora-muga 2020an duten proiektuak dira eta, kasu guztietan, ekintzara bideratuta egoteaz gainera, epe laburrean (2-3 urte) emaitza praktikoak eta ukigarriak lortzeko xedea dute. Proiektuak ezartzeak plataformak (formalak edo ez-formalak) sortzeko balioko du, haien sustatzaile diren Eusko Jaurlaritzako Sailen artean ahalmenak elkar ditzaten, konfiantza eta konplizitateko espazioak sor daitezen eta baliabideak eta elkarren arteko lan teknikoak partekatzeko balio dezaten. Era horretan sinergiak eta biderkatze efektua baliatzen dira eta eragileen artean ikastea eta ezagupenak transferitzea ahalbidetzen da, lankidetzak eta berrikuntza publikoa ezaugarri izango diren esparru batean. Ditutzen helburuen arabera, proiektuak irekita daude Foru Aldundiek, Udalek edota beste erakunde batzuek parte har dezaten, bai-eta lankidetzak publiko-pribaturako ere. Era berean, Unescoren Mab programarekin (Man and Biosphere) bat eginez, proiektu horiek abian jartzeko laborategitarako bokazioa duen espazio gisa irudikatzen da Urdaibaiko Biosfera Erreserba.

## 2020rako INGURUMEN ESPARRU PROGRAMAREN PROIEKTU GILTZARRIAK

### 1. PROIEKTU GILTZARRIA **ADMINISTRAZIO EREDUGARRIA INGURUMENAREN ALDETIK**

### 2. PROIEKTU GILTZARRIA **LURRALDE OSASUNGARRIA**

### 3. PROIEKTU GILTZARRIA **INGURUMEN-FISKALITATEA**

### 4. PROIEKTU GILTZARRIA **FABRIKAZIO BERDEA**

### 5. PROIEKTU GILTZARRIA **ELIKADURA ZIRKULARRA**

### 6. PROIEKTU GILTZARRIA **AZPIEGITURA BERDEAK**

## 1. PROIEKTU GILTZARRIA. ADMINISTRAZIO EREDUGARRIA INGURUMENAREN ALDETIK

Arautzaile gisa jokatzeko duen rol garrantzitsuaz aparte, Euskadiko Herri Administrazioak paper eredugarria jokatu behar du herritarren, enpresen eta mota guztietako erakundeen aurrean, izan ere, erantzunkidetasuna eskatzen baitie, eta ingurumenarekiko arduraz jokatzeko.

Proiektu giltzarri honen helburua hainbat jardura abian jartzea da Eusko Jaurlaritzaren, haren mendeko organismo autonomoen, erakunde eta sozietate publikoen, fundazioen eta partzuergo publikoen ingurumen-inpaktua minimizatzeko, eredugarritasunaren bidez trazio efektua eragiteko bai sektore pribatuan eta bai herritarrengan.

### Eusko Jaurlaritzak honetan egingo du lan:

- Bere aktibitateak eragindako ingurumen-inpaktua identifikatzea eta aztertzea. Eraikinak, garraioa eta mugikortasuna, ondasun eta zerbitzuen erosketa eta hondakinen sorrera.
- Proiektuak eta haien kostu eraginkorrak identifikatzea ingurumen-inpaktua arintzeko eta plan tekniko-finantzarioak ezartzea haiek abian jartzeko.
- Ingurumen-inpaktua, oro har, murrizteko ekimen pilotuak abian jartzea. Eraikin publikoen energiaren eremuan eta garraioan, pertsonen mugikortasun jasangarrian.
- Erosketa publiko berdeko prozedurak ezartzea Eusko Jaurlaritzak produktuak eta zerbitzuak erosi behar dituztenean. Beste erakunde publiko batzuei –Udalei, bereziki– sostengua eta aholkularitza ematea erosketa publiko berdeko prozedurak ezar ditzaten.
- Herri-administrazioetako langileen trebakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea.

### Lantaldea:

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.
- Ogasun eta Finantza Saila.
- Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

**2020an**, proiektuak emaitza hauek izango ditu: energia kontsumoa murriztu eta berriztagarrietatik datorrenaren proportzioa igotzea, materialen erabilera eta hondakinak murriztea, berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzea eta erosketa berdearen ehunekoa igotzea Eusko Jaurlaritzaren esparruan.

**2017rako** emaitza hauek aurreikusten dira:

- Eusko Jaurlaritzaren eraikinetan energia-jasangarritasunerako programa bat onartzea, non energia eraginkortasunari eta berriztagarriei buruzko neurriak jasoko diren.
- Eusko Jaurlaritzak 2020rako erosketa publiko berdeko programa onartzea eta Europar Batasunak erosketa berdearen arloan gomendatutako helburuak erdiestea.
- Jaurlaritzak eskaintzen dituen zerbitzuak ingurumenaren ikuspegitik modu jasangarriagoan egitera bideratutako jarduerak ezartzea.

## 2. PROIEKTU GILTZARRIA. LURRALDE OSASUNGARRIA

Pertsonak bizi diren tokiak eragina du haien osasunean eta bizimodu osasuntsua izateko dituzten aukeretan. Lurraldean gertatzen da pertsonen eta ingurumenaren arteko eragin trukea. Espazio horietan hautematen da, argi eta garbi, osasunaren, ongizatearen, bizi-kalitatearen eta ingurumen fisikoaren arteko erlazioa.

Proiektu giltzarri honen helburua ekintzak garatzea da osasuna/ingurumena aldagaia lurralde-politikan integratzeko prozesuan aurrera egiteko eta hiri-bizitza bat artikulatzeko non bizimodua pertsonen osasunarekin eta erabateko ongizatearekin bateragarria izango den. Euskadiko udalerriek, 2020an, bide dezente korritua izango dute lurralde osasungarriko eredu ezarketan eta hiriko bizitza berroneratzeko neurri ausartak eta goranahiak abian jartzeko prozesuan, betiere osasuna sustatzeko eta ingurumenetik etor daitezkeen arriskuetatik herritarren osasuna babesteko.

### **Eusko Jaurlaritzak honetan egingo du lan:**

- Hiri-garapen jasangarria. Tresnak garatu eta ezartzea hiri-ingurunekeo ekimen sektorialek pertsonen osasunean duten inpaktua aztertu eta ebaluatzeko.
- Osasun-ikuspegia politika guztietan. Osasuna/ingurumena aldagaia lurralde-politikan integratzea, osasunaren lentea izeneko tresna aplikatuz Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza alorretako hainbat ekimeni eta esku-hartze esanguratsuri.
- Ingurumen-arriskuen informazio sistema. Informazio-bilketa bateratua. Isurketa-fokuak eta abar georreferentzia bidez kokatzea.
- Osasun eta Ingurumen Adierazleak. Osasun eta ingurumeneko adierazle estrukturalen panel bat elaboratzea eta jarraipena egitea.

### **Lantaldea:**

- Osasun Saila.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.
- Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

Proiektuaren helburua, **2020an**, bere aztarna ekologikoa optimizatzen duen eta pertsonen kalitatea eta osasuna hobetzen dituen lurralde jasangarriagoa lortzea da.

### **2017rako** emaitza hauek aurreikusten dira:

- Politika publiko desberdinek osasunean duten inpaktuaren azterketa eta ebaluazioa egiteko tresna bat ezartzea.
- Osasun eta ingurumeneko adierazleen panel bat ezartzea.
- Lurralde eremuen arabera, «populazioen osasun-profilen» definizioa eta azterketa.
- Ingurumen-arriskuei buruzko informazio-sistemekin lotura duten populazioarekiko jarduera eta komunikazio protokoloen definizioa.

### 3. PROIEKTU GILTZARRIA. INGURUMEN-FISKALITATEA

PFEZ, BEZ eta Sozietateen gaineko zerga bezalako figura garrantzitsuak ez ezik, kontuan edukitzekoak dira beste zerga-figura batzuk ere, hala nola udal-zergak, tasak eta eragile sozialen jokabidean eragina duten prezio publikoak.

Proiektu giltzarri honen helburua behar diren urratsak egitea da Euskadin, pixkanaka, herritarren, enpresen eta erakundeen ingurumenari buruzko jokaera arduratsuen sustapena era sistemikoan aintzat hartuko duen zerga-sistema bat ezartzea lortzeko.

#### **Eusko Jaurlaritzak honetan egingo du lan:**

- Euskadiko zerga-sistema eta prezio publikoak eta fiskalitate berderako eduki ditzakeen potentzialak aztertzea.
- «Benchmarking» azterketak egitea Euskadirekin alderatzeko moduko eskualde eta herrialdeetako sistema fiskal berdeekin, beroriek ezartzeko ikasgaiak ateratzeko xedez.
- Eskumena duten instantzietan, zerga-sistemaren eta prezio publikoen aldaketak proposatzea, non begietsiko diren aldaketa horiek ekonomian, gizartean eta ingurumenean izango dituzten inaktuak.
- Pixkanaka, fiskalitate berdea ezartzea Euskadin.
- Aldaketa fiskal berdeek ingurumenean eragiten dituzten inpektuen jarraipena egitea.

#### **Lantaldea::**

- Ogasun eta Finantza Publikoen Saila.
- Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
- Foru Aldundiak.

**2020an**, proiektuak emaitza hau izatea espero da: zerga-figura eta prezio publiko jakin batzuen eraldaketa prozesuan aurrera egitea, ingurumenarekiko jokaera arduratsuak sustatzeko.

**2017rako** emaitza hauek aurreikusten dira:

- Lantalde bat eratzea Ogasun eta Finantza Publikoen Sailaren eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren artean.
- Fiskalitate berde baten ezarketaren analisisa.

#### 4. PROIEKTU GILTZARRIA. FABRIKAZIO BERDEA

Euskal industria izan da ingurumenaren arloan aurrerapen handiena egin duen sektorea azken urteotan: berotegi-efektuko gasen isurketak % 43 murriztu ditu 1990etik 2012ra bitartean, airearen kalitatean zeukan eragina nabarmen jaitsi da eta hondakin arriskutsuen sorrera, berriz, % 10 gutxitu du 2003 eta 2010 artean. Hala ere, euskal ekonomiak, non ETEak % 94 diren, 23 M tona material kontsumitzen ditu eta inolako aprobetxamendurik gabe uzten ditu hondakinen % 47; bien bitartean, manufaktura sektoreko ETEetan oinarritutako enpresa-ehuna du.

Proiektuaren helburu nagusia ekoberrikuntza bultzatzea da, hau da, negozio-aukerak sortzen dituen eta ingurumenari on egiten dion –prebentzioa eginez, inpaktua murriztuz edo baliabideen erabilera optimizatuz (energia barne)– berrikuntza oro sustatzea, teknologikoa, ez-teknologikoa, produktu eta zerbitzu berrien ingurukoa edo merkataritzako praktika berriei buruzkoa izan. Proiektu honetako jardueren jomugak izango dira: enpresek material- eta energia-baliabide gehiago aurrezteak –horrek kostuetan dakarren jaitsierarekin–, hondakinen aprobetxamenduari ahalik eta bultzada handiena ematea, eta ingurumenak eskaintzen dituen lehiakortasun-abantaila guztiak baliatzea.

##### **Eusko Jaurlaritzak honetan egingo du lan:**

- Euskal enpresen ekoberrikuntza merkatuak eskaintzen dituen aukeretara zuzentzea, RIS3 espezializazio adimentsuko estrategiaren hedapena sostengatuz fabrikazio aurreratuko metalehentasunean, eta negozio-eredu berriak lagunduz.
- Elkarren arteko sostengu-programen kudeaketa bultzatzea, Sail batzuen eta besteen ahalmenak ustiari eta produktu eta prozesu eraginkorrak garatzeko aukera egon dadin hornidura-kateen bitartez.
- Tresna bateratuak (tekniko-fiskalak) garatzea produktu sekundarioen merkatua errazteko, produktu balioztatuetan oinarritutako lehengai berriak garatzeko, zikloak ixteko eta material-korronte nagusiak balioztatzeke.
- Sektorerako aukera lehiakorren bilaketari bultzada ematea.

##### **ELantaldea:**

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.
- Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

**2020an**, proiektuak emaitza hauek izango ditu: Euskadiko enpresak egoera hobean egongo dira lehiakortasunari dagokionez; ondorioz, baliabideen kontsumoa eta ingurumeneko inpaktua murriztuzagoak izango ditu eta abantaila ekonomikoa aterako dio hondakinen aprobetxamenduari.

**2017rako** emaitza hauek aurreikusten dira:

- Teknologia eta material garbiagoen zerrenda berri baten garapena eta ezarketa.
- Merkaturik industrialiki kokatzeko oztopoak aurkitzen dituzten materialen zikloak ixteko prozesu eta ideia teknikoki bideragarriak sostengatzeko sistema aurreratu baten kudeaketa.
- Sailetako hainbat sostengu-programaren bitartez, produktuen ekodiseinurako eta prozesuen eraginkortasunerako proiektuei bultzada integratua ematea, Euskadiko espezializazio adimentsuaren estrategiarekin bat etorrituz.

## 5. PROIEKTU GILTZARRIA. ELIKADURA ZIRKULARRA

Proiektuaren helburua Euskadiko lehen sektorearen ingurumen-funtzioari balioa eta garrantzia ematea da, Euskadin elikaduraren balio-katearen ziklo osoa aprobetxatzearen bitartez (ekoizpena, eraldaketa, salmenta, berrerabilpena, eta azpiproduktu eta hondakinen balioztatzea), hala, kapital naturala indartzeko, ekosistemen zerbitzuak aktibatzeke, pertsonen osasuna hobetzeko eta nekazaritzaren garapen jasangarrian oinarritutako enplegu sorrera mesedetzeko. Proiektuaren azken helburua lehen sektoreak ingurumenean duen eragina optimizatzea da, haren inpaktu ekologikoa minimizatuz eta bere aktibitatearekin kapital naturalaren stocka indartuz.

### **Eusko Jaurlaritzak honetan egingo du lan:**

#### **Nekazaritza ereduaren eraldaketa:**

- Baserri inguruneke pertsonak sentsibilizatzea ingurumenak eskaintzen dituen aukerei buruz, horretarako, erakuspen-proiektuen garapena mesedetuz maila guztietan.
- Ekosistema-zerbitzuengatik ordainketa praktikak aztertzea, nekazaritza-jardunbide jasangarriak abian jartzen dituzten eragilei.

#### **Nekazaritzako produktuak eraldatzeko eta banatzeko era berriak:**

- Tokiko nekazaritza-elikagai industriaren ekoberrikuntza bultzatzea.
- Enpresa ekoizleen balio erantsia handituko duten (tarteko enpresak minimizatzearen bidez) eta ingurumen-inpaktua minimizatzen duten produktu eta zerbitzuen zirkuitu laburrak eta banaketa-kanalak mesedetzeko.

#### **Produktu jasangarrien merkatua aktibatzea:**

- Tokiko produktu jasangarrien presentzia mesedetzeko gehien erabiltzen diren salmenta-puntuetan, batez ere hiri-merkataritzan.
- Kontsumitzailea sentsibilizatzea kontsumo arduratsuaren garrantziaz.
- Produktu jasangarrien eskaera aktibatzea erosketak publiko berdearen bitartez, bereziki eskolako jangeletan.

#### **Azpiproduktuen aprobetxamendua eta hondakinak minimizatzea:**

- Elikadura katean ekonomia zirkularra bultzatzea tokiko produktu jasangarriekin, prozesuak optimizatzearen, berrerabilpenaren eta material sekundarioen aprobetxamenduaren bitartez: prozesuetan berrerabiltzea, elikagai berrien ekoizpena, konpost ekoizpena, balioztatze energetikoa...
- Zero hondakineko jokabideak mesedetzeko elikagaien kontsumo handia dagoen zentro edo saltegietan.

#### **Ikerketa eta monitorizazioa:**

- Ikerketa proiektuak bultzatzea nekazaritza sektorearen, pertsonen osasunaren eta ingurumenaren arteko erlazioa hobeto ezagutzeko.
- Nekazaritza sektoreak ingurumenean eragiten dituen inpaktuen azterlanak sustatzea.



**Lantaldea:**

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.
- Osasun Saila.
- Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

Proiektuaren helburua **2020an** Euskadin nekazaritza eredu berri bat sendotuta izatea da, ingurumena errespetatuko duena eta elikadura-portaera arduratsuak sustatu eta erraztuko dituena.

**2017rako** emaitza hauek aurreikusten dira:

- Zirkuitu laburrak eta elikadurako zikloak ixtea bultzatzearen azterketa.
- Tokiko produktuaren bereizkuntza bultzatzea karbono-aztarnak eta hidrikoak kalkulatzearen bidez.
- Nekazaritza eta arrantza eredu berriek eskaintzen dituzten aukerei buruzko sentsibilizazio-proiektuak aurrera eramatea.
- Nekazaritza-ekoizpeneko proiektu pilotuak ezartzea, non ordainketak egingo diren ekosistema-zerbitzuak emateagatik.
- Elikadura arduratsuko proiektu pilotu bat gauzatzea ikastetxeekin.
- Elikadurari eta ingurumenari buruzko etorkizuneko ikerketa lerroak definitzea.

## 6. PROIEKTU GILTZARRIA. AZPIEGITURA BERDEAK

Proiektu giltzarri honen orientazioak lurraldearen plangintzatik eta antolamendutik sortutako planteamendu estrategikoarekin lotu nahi du azpiegitura berdeen garapena; planteamendu horretan administrazioa eta ekimen pribatua batu nahi dira epe luzeko proiektuen errentagarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumen arlokoa kontuan hartuko dituen finantzaketa bide berritzaileak bilatzen dituen ikuspegi integratzailea erabilia: eremu babestuetatik kanpo aisialdirako espazioak sortzea, izadia biztanleria-guneetara hurbiltzea, hiriko bizia eta ekonomia biziberritzea, azpiegitura linealak kontuan hartuta kapital naturala hobetzea habitataren zatikatzea eta haiek paisaia duten inpaktua murriztuz, ekosistema-zerbitzuak ustiatzea, enplegu berdea sortzea, klima-aldaketa arintzea eta hartara egokitzea, uholdeen kontrako defentsa, etab.

Proiektuak Euskadin azpiegitura berdeen ezarketa eta garapena mesedetzea bilatzen du. Azpiegitura berdeak kapital naturala eta ekosistemen zerbitzuak optimizatzea ahalbidetzen duten jarduerak dira, ezartzen diren lurraldean. Ingurune natural babestuetan ezar daitezke, baina baita beste eremu natural edo erdi-natural batzuetan ere, are gehiago, eremu degradatuetatik eta oso artifizializatutako hiri-eremuetatik abiatuta ere gara daitezke, pertsonen eta ingurune naturalaren arteko zuzeneko eragin-trukea mesedetzen dela. Hori da, esate baterako, teiltatu edo harresi berdeen kasua, edota hiri-espazioa eta izadia konektatzen eta integratzen dituzten parke eta eratzun berdeena.

### Eusko Jaurlaritzak honetan egingo du lan:

- Azpiegitura berdeak lurralde-antolamendurako tresnen artera gehitzea, klima-aldaketarekin edo kudeaketa hidrikoarekin lotzen direla.
- EAEn existitzen diren azpiegitura linealak aztertzea/berrikustea, ahal den neurrian, azpiegitura berde gisa betetzen duten funtzioa hobetzeko/bultzatzeko.
- Ekosistema-zerbitzuak emategatiko ordainketa eta tresna ekonomikoen potentziala aztertzea, azpiegitura berdeak finantzatzeko bide gisa.
- Erregulazioaren eta araudien potentziala aztertzea azpiegitura berdeen ezarketa mesedetzeko, beste batzuen artean, II Etan jasota egon ohi diren neurriak sustatuz.
- Azpiegitura berdeen ezarketan ekimen pribatuaren presentzia indartzea ekosistema-zerbitzuekin lotura duten gaitan.
- Tokiko administrazioekin lan egitea jasangarritasunaren esparruan integratutako proiektu pilotuak abian jartzea sustatzeko.

### Lantaldea:

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.
- Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

**2020an**, proiektuaren emaitza hau izango da: Euskadin azpiegitura berdeen ezarketan aurrera eginda egotea.

**2017rako** emaitza hauek aurreikusten dira:

- Ekosistema-zerbitzuen esparruan, azpiegitura berdeetan jarduteko irizpideak elaboratzea.
- Azpiegitura berdeak ezartzeko finantzaketa-tresnen azterketa.
- EAEn dauden azpiegitura linealen azterketa eta haien potentziala azpiegitura berde bilakatzeko.
- Eragile publikoak eta pribatuak trebatzea azpiegitura berdeetan eta ekosistema-zerbitzuetan.
- Azpiegitura berdeen proiektu pilotuak abian jartzea eragile publiko eta pribatuekin.

## II. ERANSKINA. DIAGNOSTIKO-DOKUMENTUAK

### 1. Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak.

[http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4744/Lineas\\_Estrategicas\\_PMA.pdf?1402398133](http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4744/Lineas_Estrategicas_PMA.pdf?1402398133)

### 2. Nondik txostena: 1980-2012 urteetako Euskadiko ingurumenaren egoerari buruzko balantzea.

[http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4745/Nondik\\_Evolucion\\_Ambiental\\_es.pdf?1402398202](http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4745/Nondik_Evolucion_Ambiental_es.pdf?1402398202)

### 3. 2013ko Euskadiren ingurumen-profila; ingurumen-adierazle nagusiak.

[http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4725/Perfil2013\\_Indicadores\\_Ambientales\\_es.pdf?1402398063](http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4725/Perfil2013_Indicadores_Ambientales_es.pdf?1402398063)

### 4. Euskadiren Ingurumen Errendimendu Adierazlea. 2013.

[http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4742/Indice\\_Rendimiento\\_Ambiental\\_es.pdf?1402398106](http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4742/Indice_Rendimiento_Ambiental_es.pdf?1402398106)

### 5. 2011-2014 aldirako III. IEPren eta 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiaren ebaluazioa.

<http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4795/Evaluacion.pdf?1402398320>

### 6. Euskadiko baliabideen produktibitatea.

[http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4747/Productividad\\_Recursos\\_Euskadi\\_es.pdf?1402398240](http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4747/Productividad_Recursos_Euskadi_es.pdf?1402398240)

### 7. Euskadiren 2030eko ingurumen-eszenatokiak.

[http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4793/Escenarios\\_Ambientales.pdf?1402398282](http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4793/Escenarios_Ambientales.pdf?1402398282)

### 8. Ekonomia berdea Euskadin.

[http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4741/Economia\\_verde\\_Euskadi.pdf?1402398083](http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/4741/Economia_verde_Euskadi.pdf?1402398083)

### 9. Barne-erlazioak Eusko Jaurlaritzaren plangintzan.

## III. ERANSKINA. IV. IEP 2020 ELABORATZEKO PARTE-HARTZE PROZESUA

[http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/5075/anexo\\_1\\_metodologia\\_y\\_resultados\\_pma\\_2020.pdf?1406707139](http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/5075/anexo_1_metodologia_y_resultados_pma_2020.pdf?1406707139)